





ARGIA

IKASLEEN SEGREGAZIOA GASTEIZEN
EUSKAL HERRI ZURI
KLASE ERTAINEKOAREN
BURBUILA





Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.800 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.





Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpigituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 June Fernández
- 20 Nora Barroso
- 21 Iván Giménez
Edu Zelaieta
- 22 Bea Salaberri


Rafael Berrio donostiar kantautorearekin solastu da Sustrai Colina.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA:
SONYA CHAREST
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Rafael Berrio: "Gauza izugarriak umorez esan ezean pedante bihurtzen zara" / Sustrai Colina
- 24 | Ikasleen segregazioa Gasteizen: hesiak elkarbizitzari / Mikel Garcia Idiakez
- 30 | Arturo Elozegi, euskal ibaien egoeraz / Marijo Deogracias Horrillo
- 33 | Julia Martinez: "Arazo fisikoen %99,99k osagai emozionalak dituzte" / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 34 | Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako: Añorgak hartu du lekukoa / Onintza Irueta Azkune
- 42 | Iban Urizar: "Ez diot inolako beldurrik kantu bat egitera itsu-itsu abiatzeari" / Kepa Matxain
- 46 | Furia: "Ez dago berezko estilo matxistarik, halako erabilerak baizik" / Iker Barandiaran

OHARRA: DATORREN ASTEAN EZ DUGU ARGIA KALERATUKO. APIRILAREN 10EAN ITZULIKO GARA.
ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua


Gipuzkoako Foru Aldundia


DOAN ETA LIBRE

 ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
 Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
 Interneten: www.argia.eus.
 Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
 Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
 Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Europako demokraziaren fantasia lokaztua

Rojavan jaio zen Ridwan, Siriaren menpeko Kurdistanen eta Greziarainoko bidea egin du gerratik ihesi. Hankak bere etxea bonbardatu zutenean galdu zituela dio, eta egun Mazedoniako mugan bizirauten du gurpildun aulki batean. Idomenin ez aurrera ez atzera, baldintza penagarrietan dauden milaka errefuxiatuetako bat da. Bien bitartean, Europar Batasunak nazioarteko legedia urratzen jarraitzen du, babeska eskatu duen pertsona bakoitzaren egoera aztertu beharko luke; eta taldekako kanporatzeak ez du hori bermatzen.

Argazkia: Olmo Calvo



“Modu jasangarrian ekoiztutako energia berriztagarria %100 izatea dugu helburu”

Gustavo Fernandez,
Zalduondoko alkatea

argia.eus/multimedia



Erraustegiaren eragina osasunean

Xabier Mitxelena eta Maialen Berridi medikuen hitzaldia, erraustegiak osasunean sortzen dituen ondorio kaltegarrii buruz.



Hezkuntza: eskubide unibertuala?

Hezkuntzaren erradiografia ikasleen ikuspegitik: erreformak, pribatizazioa, unibertsitatera sartzeko traba ekonomikoak, euskaraz ikasketa guztiak burutzeko arazoak...



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Zumarragako Arcelor Mittalen etorkizuna kolokan

Unai Brea / Iker Oñate
@unaibrea @iker_onate

Arcelor Mittal transnasionaleko zuzendaritzak Zumarragan daukan lantegiko jarduera eteteko asmoa agertu zuen martxoaren 15ean. Lantegiaren eta bertako 352 beharginen etorkizuna zalantzan da beraz.

Sindikatuak erabakiaren erabat kontra agertu dira. LABen ustez “Eusko Jaurlaritzak multinazionalarekiko duen morrontza agerian geratu da”; eta ELAren iritziz, transnazionalaren zuzendaritzak hartutako erabakiak ez du merezi “itxiera” beste izenik.

Altxairugileen gezurra: argindarra merkeagoa da Espainian

Arcelor Mittalek azaldu du merkatuko baldintzek bultzaturik etengo dutela

jarduera, besteak beste, argindarraren kostuagatik.

ELA sindikatuak, martxoan Gorka Bueno EHUKo irakasleak argitaraturiko azterketa bat aipatu du altzairugileak gezurretan ari direla salatzen. Azterketaren arabera, Espainiako Estatuko argindarraren batez besteko prezioa Europako beste hainbat herrialdeetan baino merkeagoa da, batez ere industria alorreko kontsumitzaile handientzat. Espainiako Estatuko industria erabilerarako argindarraren batez besteko prezioa ez da Alemaniakoa baino handiagoa, esaterako. 2014ko urtarrilean, Espainiako Estatuan 0,07 euro ordaindu behar zen kilowatt bakoitzeko eta Alemanian 0,1.

Txostenak dioenez, ez da aintzat hartu Europako gainerako herrialdeek argindarrari ezartzen dioten zerga. Espainiako Estatuaren kasuan, argindarraren prezioak barnean daroa BEZa, Europako beste herrialdeek ez bezala.

“Gure atxiloketen helburua errefuxiatuak zigortzea izan zen”

ANE IRAZABAL, KAZETARIA

Mazedoniako polizia 72 kazetari eta ekintzaile atxilatatu zituen, tartean Ane Irazabal, errefuxiatuen krisiaren berri ematen ari zirela. 12 ordura aske utzi zituzten. Aurreko egunean, erreka bera gurutzatzen ari zirela hotzaren ondorioz hiru errefuxiatu hil zirela kontatu du Irazabalek. “Legea eskuetan, ez da ilegala guri isun bat jartzea, baina errefuxiatuek aurrera egiten badute, gu aurrera goaz eurekin batera. Gure lana egiteagatik atxilotu gaituzte”. **MONDRABERRI (2016-03-15)**



Fukushimak 5 urte

Ehunka urte beharko dira zentrala eraitsi ahal izateko.

100.000 lagun etxetik desplazatuta, eta 5 milioi lagun eremu kutsatuetan bizi dira.



INFOGRAFIA: GARBINE UBEDA

Erradiazio
kontzentrazio handia zedroen hosto berrietan eta polenean.



Mutazio hereditarioak
tximeleta urdinetan (Japoniako espezie endemikoa). Halaber, mutazioak izeian eta antzeko zuhaitzetan.

Ugalketa
57 hegazti espezieren populazioa urritu da. Esate baterako, enararena.



Ur gezako arrainak zesioz kutsatuta.

TEPCOk 150 tona ur erradioaktibo isurtzen ditu itsasora, egunero. Ur hori erreaktoreak hozteko baliatzen du eta lurrazpira ere filtratzen da.



6.800 lagun
ari dira egunero Fukushima Daichi zentralan lanean.

Arazo psikikoek, gaitz arraroek, suizidioek eta minbizi kasuek gora egin dute

Metro kubiko banako **9,16 milioi zaku hondakin** bildu dira bost urtean. Han-hemenka, 114.700 tokitan daude barreiatuta.





Euskararen ezagutzak okerrera egin du EAEko ikasleen artean

Iker Oñate Aiestui

@iker_onate

Euskararen alorrak inoizko datu kaskarrenak eskuratu ditu 2015eko diagnostikoko. Emaitzek EAEko Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2.eko ikasleei aldiro egiten dizkieten probak dituzte oinarri. Ebaluazio emaitza orokorrek ere okerrera egin dute.

10 urte duten ikasleen %36 ez da euskarazko gutxieneko mailara heltzen; 14 urte dutenen artean, %46 dago egoera horretan. Euskararen alorrean maila aurreratua erakutsi duten ikasleen ehunekoak ere behera egin du: Lehen Hezkuntzako %26koa da eta DBHn %16koa. Bestalde, gaztelanian, ingelesean eta matematikan ere kaskartu egin dira ebaluazio emaitzak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek azaldu du emaitzen eboluzioa “espero zena” ez izan arren, “joera egonkorra” dela, gorabeherak 10 punturen barruan daudelako. “Estatistika aldetik, arrazoizko gorabeherak dira”, gaineratu du.

Ikasleen indize sozioekonomikoak eta kulturalak eragina dute datuetan;

zenbat eta indize handiagoa, emaitza hobeak lortzen dira. Azken urteetan behera egin dute, batik bat D ereduko ikasleen artean.

Etxean euskara darabilen ikasle kopuruak behera egin du eta horrek eragina izan du diagnostikoak. Uriartek kezka adierazi du egoera horren aurrean eta gogorarazi du D ereduak ez duela bermatzen ikaslearen hizkuntza gaitasuna. Euskararen “didaktikari” lotuta, aldaketa beharra ikusten du sailburuak.

Zientzian hobekuntza

Beste sailetan ez bezala, emaitzek hobera egin dute zientziaren alorrean. Hezkuntza diagnostikoak erakutsi du Lehen Hezkuntzako ikasleen artean %20,2 direla maila aurreratua dutenak, 2013ko azterketan %19,8 ziren. DBHn ere gora egin du zientzian maila aurreratua dutenen kopuruak: %14,9 izatetik %17 izatera pasa dira.

Emaitzak kaskartu izanaren errua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari egotzi diote sindikatuek. “Azken urteetako emaitza kaskarrenak dakartzkigu diagnostikoak eta Cristina Uriarte sailburuak aplikaturiko murrizketek dute horren errua”, adierazi dute Steilasetik.

EKONOMIAREN TALAIAN

Lan istripuak prebenitu



Juan Mari Arregi

Bi langilek bizia galdu zuten martxoaren 1ean Ondarroako portuko Santa Clara Kofradiaren fabrikan izandako lan istripuan. Konpresore baten hutsegiteak amoniako ihesa eragin zuen, izotza sortzeko gai funtsezkoa. Sindikatuek eta eragile politikoek berehalakoan eskatu zuten istripuaren arrazoia argitzea. Sindikatuek patronala salatu dute, haien esanetan lan segurtasuna ez delako lehen tasun bat enpresari entzate, eta ondorioz, ez dituzte beharrezko inbertsio ekonomikoak egiten. Lan istripu hilgarri bat gertatzen den bakoitzean ohikoak diren manifestazio eta kontzentrazioak ere egin zituzten.

Patronalarena eta instituzioena den erantzukizunaz gain, badaude ardura batzuk sindikatuek eta enpresa komiteek beren gain hartu behar dituztenak eta ahaztu ezin ditugunak. Lan istripu asko eragotzi daitezke prebentzio politika irmoa eskatzeko jarrera etengabearekin. Ondarroako kasuan, hainbat herri-tarrek ahotsa altxa dute esanez lehenago ere egon izan direla amoniako ihesak. Egun batzuk lehenago, bizi-lagunen arabera, “amoniako usaina zegoen fabrikaren aurretik igarotzean”. Enpresa, udal eta administrazioez gain, sindikatuek eta enpresa batzordeak zer egin dute lehenago izandako amoniako ihesen aurrean? Ez bazitzaie kasurik egin, zergatik ez ziren mobilizatu eta produkzioa geldiarazi?

Lan istripu hilgarri bakoitzaren atzean hipokresia itxura har dezake sindikatuak eta enpresa komiteak pankarta atzean ikusteak patronala eta instituzioak salatzen, lan segurtasun falta eta inbertsio nahiz kontrol eza dela-eta. Ez gutxitan, gehiago egin dezakete heriotzak eragiten dituen lakra laboral horren kontra; adibidez, horien prebentzioan azkenerraino konprometitzea.



TOPATU

Milaka ikasle, hezkuntza sistema propioaren alde

EUSKAL HERRIA. Ikasle Abertzaleen arabera, 15.000 lagun inguruk hartu zituzten kaleak martxoaren 17an, "hezkuntzatik sistema hau iraultzeko subjektu garena argi utziz." Helburua, "gaur egungo hezkuntza ereduarekin eta erreformekin (LOMCE, Heziberri, EU2015, 3+2...) apurto eta herritik eta herriaren mesedetan egongo den hezkuntza ereduera irakitzeko". Besteak beste, Donostia, Bilbo, Iruñea, Gasteiz eta Baionan egin zituzten mobilizazioak. Protestetan, gutxienez 12 ikasle atxilotu zituzten eta dozenaka zauritu.

Homofobiaren biktimenezat protokoloa eskatu dute

Arabako Alea

@ArabakoAlea

Gasteizko Eskubide Sozialen Aldeko Plataformak indarkeria homofoboaren aurkako protokoloa eta zerbitzu sozialen eraldaketa sakona eskatu du.

Gay izateagatik kaleratua

21 urteko ikasle gazte bat bere etxetik bota zuten, gay izateagatik. Bere kasua hainbat erakundetan aurkeztu arren, hala nola Gasteizko Udalean eta Eusko Jaurlaritzan, momentu horretan behar zuen laguntza ez zuela jaso azaldu du plataformak.

Protokoloaren premia

Halakoei aurre egiteko, "azaroan onartu zuten deklarazio instituzionalan jaso bezala protokoloa sortzeko" eskatu diote Gasteizko Udalarari. Kitzikan, 7menos20, Arabako Emakumeen asanblada, Bilgune Feminista eta Mugarik Gabe kolektiboek osatzen dute plataforma.

Zerbitzu sozialak eraldatu beharra

Zerbitzu sozialen eraldaketa sakona ere aldarrikatu dute, "beren lehenbiziko funtzioa bete dezaten, alegia, pertsonen integrazioa eta bertaratzen diren kolektibo desberdinei laguntza eskaintzea, pobrezia kriminalizazioa alde batera utziz".

GERRA



3,7

milioi haurrek gerra baino ez dute ezagutu jai zirenetik, duela bost urte Sirian gerra hasi zenez gerotik jai baitira. Horietatik 2,9 milioik Sirian jarraitzen dute, eta 811.000 errefuxiatuta daude.

151.000 haur baino gehiago errefuxiatu kanpaleketan jai dira jada, UNICEFen arabera.



ZESTOAKO TS FUNDICIONES ABIAN

TS Fundiciones-eko langile ohiek publiko egin dute GRI Castings enpresaren zuzendaritzarekin lortu duten akordioa. 120 langile ohi hasiko dira bertan eta lan gehiago sartu ahala, gehiago izango lirateke kontratuak.



"GORA GASTEIZ: IZAN KOLORE"

Gora Gasteiz: izan kolore dokumentala aurkeztu dute. Beñat Fontanedak ekoiztu eta zuzendu du dokumentala eta elkarrizketen bidez, Gasteiz anitza aldarrikatzen zuen herri ekimenaren jaiotza eta ibilbidea kontatzen du.



AZPIEGITURA SUNTSITZAILERIK EZ

AHT Gelditu! elkarlanak Txirrinka bizikleta martxarako deia egin du, Hego Euskal Herrian "lurra eta jendartea mehatzatzen dituzten egitasmo suntsitzaileak" salatzen asmoz. Maiatzaren 20tik 22ra egingo da martxa.

Brusela-Turkia, xenofobiarekin jolasean



Xabier Letona

@xletona

ETA ERREFUXIATUAK gu bagina? Zer jarrera nahiko genuke erakustea edo zelako herrialdek gurekin? Galdera begi bistakoa da, beraz, egitea ere soberan legokeela pentsa liteke. Baina ez da hain argia, antza, Europar Batasuneko gure agintariak Ekialde Erdiko errefuxiatuekin egiten ari direna kontuan hartuta. Esan nahi du mataza askatzeko oinarri-oinarririk abiatu behar dugula, bestela jai. Enpatia eta elkartasunetik ekin ezean, erantzunak itsas hondoan amaituko baitu, Egeo Itsasoan siriar errefuxiatuak nola; edo Lesvos eta Idomeniko kanpalekuetan harrapatuak; edo berriz Turkiako errefuxiatu esparruetan.

Ez dakit zein distantzia dagoen Alepotik Atenasera, Via Michelinek esan dit ezin didala kalkulatu. Baina badakit elkartasunetik beldurrera oso tarte gutxi dela, eta EBren jokaldia beldurrean oinarritzen dela, honek bultzatzen dituela EBko gobernu buruak Turkiarekin duintasunaren aurkakoa den akordioa sinatzera.

Askoz demagogia handiagoa da Europar Batasuna elkartasuna eta elkarlanean oinarritzen dela azpimarratzea, iheslarien arbuiatzetik xenofobia elikatzen denean

Agintarien klabea ez da etxea edo ongizatea galtzeko beldurra, botoa galtzekoa baizik. Agintariarena ez, baina gero eta herritar gehiagorena bai: lana, etxea, autoa... ongizatea atzamar artean labaindu eta galtzeko beldurra gero eta handiagoa da prekaritatearen gizar-tean. Kaleko eskalearen kartela ezin argiago mintzo da: "Zu izan zaitezke hurrengoa". Mezu gero eta zuzenagoek argi adierazten diote atzerritarrek kenduko diola lana eta deskuidatzen bada, gizonetako emaztea edo alaba bortxatu. Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europar gertatzen ari den lotsagarrikeria handienetakoa bideratzeko ardatza ez da elkartasuna, beldurra baizik.

Hala bakarrik uler daitezke Europar xenofobiaren mamua gero eta indartsuago agertzea. Kontrakoa erakusteko gai ez bagara, hori da errefuxiatuen krisitik atera litekeen ondorio nagusietakoa, eta ez dira gutxi horrek epe ertainera ekar ditzakeen ondorio larriak.

Demagogia itzela litzateke esatea milioi bat edo bi milioi pertsonaren etorrera samur kudeatu litekeela. Baina askoz demagogia handiagoa da Europar Batasuna elkartasuna eta elkarlanean oinarritzen dela azpimarratzea, iheslarien arbuiatzetik xenofobia elikatzen denean. Ez dakit zenbateraino begiratzten den Europaren historia hurbilera gaur egun, baina sarean arakutzen duenak samur ikusiko du hortik faxismora ez dela tarte handirik.

[IRUN-GURS BAI], Via Michelinek dio Saliesetik (Biarno) barrena 143 km daudela milaka euskal eta espainiar errefuxiatu jaso zituen konzentrazio esparrura. Espainiako Gerra Zibiletik ihesi joandako milioi erdi pertsonatik gora jaso zituen Frantziak hainbat gunetan, baldintza negargarrietan.

Bigarren Mundu Gerraren biharan, alemaniar jatorriko 11 milioi pertsona egotziak izan ziren Europako ekialdeko hainbat lurraldetatik nazien aurkako mendekuz. Beste milioika herritarrek, jatorrizkoa ez zen beste lurralderen batean ekin behar izan zion bizitza berri bati. 90. hamarkada hasieran Balkanetako gerrak ere milaka errefuxiatu barreiatu zituen Europar barrena.

TURKIAK 2,7 milioi errefuxiatu jaso ditu, gehienak siriarak. Libanok, Jordaniak, Irakek eta Egiptok ere milioika iheslari jaso dituzte. EBren eskuzabaltasunak ez du mugarik: irailan 160.000 errefuxiatu jasotzeko prest zegoen, orain 72.000ra egin du atzera. Turkiarekin sinatutako akordioaren muina horixe da: Turkiak mugazain lana egin dezala EBrentzat. Trukean, dirua, turkiarrek EBn libreago mugitzeko eskubidea irabaztea, eta EBra sartzeko negoziatioetan ekonomia alorreko gai batzuk azkartzea.

EBk Turkiatik Greziara iristen ari diren milaka iheslari kanporatuko ditu berriz Turkiara, eta teoriarik, kanporatutako bakoitzagatik beste bat jasoko du Turkiatik, baina oraingoz 72.000 pertsonako mugarekin. Milaka pertsona kanporatzea ez dator bat EBren legediarekin, baina legea non amarrua han. Legeak dioen moduan, hauek banan-bana eskatu ahal izango diote babesia EBri eta ondoren honek automatikoki kanporatuko ditu, hori bai, europar molde zibilizatuan, zuzenbide estatuak ematen duen helegiterako eskubidea betez. Hipokrisia maila handiagorik erakustea gaitza da.

Hainbeste gurtzen den memoria horrek balioko ote digu zerbaiteko? ■

ENE AUZOKIDEA LEKAROTZERA ALDATU DA

OZTIBARRE

GARAZI-
BAIGORRI

BAZTAN

ETXEA EROSTEKO, IRUÑERA JOANARAZI DUTE NIE* ATERATZEKOTAN

www.interior.gob.es/eu/portada

INMIGRAZIO-BULEGOKO ESPAINIAR POLIZIAK ARROTZ-AGIRIA EMAN DIO

Numero Identidad del Extranjero *

SEGIDAN [ETA BAZTANDAR HAURREKIN EUSKARAZ ARITZEKO] SALAMANCA KO UNIBERTSITATEAREN AZTERKETA GAINDITU BEHAR IZAN DU, BERE ESPAINIERAZKO MAILA ERAKUSGARRI:

dele.cervantes.es/informacion/niveles/nivel_b.2.html Bestela, jai!

ENE AUZOKIDEAK AZALDU DU EGOERA PENAGARRI ETA TRISTEA OSO ZAIOLA KOLDO MARTINEZI, ETA RIDIKULUA GORKA BEREZIARTUARI.

NIC ere caca daguiat ire ama putaren gañean



ERANTZUN DIO ESPAINIAR MINISTERIOKO FUNTZIONARIAK, BEGIAK FORMULARIO OFIZIALETATIK ALTXATU ERE EGIN BARIK.

'Ujamaa', Tanzaniako baserri txikietako sozialismo kasik ahaztua



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Tanzaniako askapenaren aita eta Afrika deskolonizatuaren aitzindari Julius Nyererek aldarrikatu zuen afrikar sustraiko sozialismoa, herri txiki autogestionatuz osatua, gizon eta emakumeen arteko berdintasunezkoa... Eredua 1960ko hamarkadan Ruvuma eskualdean loratu ostean, Nyereren alderdiko buruek ito zuten, baina erakargarria izaten segitzen du mende erdiren buruan.

Berrogei urtez eduki du Ralph Ibbottek apalean lagata *"Ujamaa, the hidden story of Tanzania's socialist villages"* (Tanzaniako herrixka sozialisten historia ez-kutatua) liburuaren eskuizkribua. Gaur 90 urteren bueltan dabiltzan Ralph eta Maureen senar-emazteek lan isila egiten dute Eskozian RUDA Tanzania elkarrekin txikian baina ez dute ahazten.

Selma James hurbildu zitzaizen Tanzaniaren galdezka. Borroka feministan ezaguna da James, Global Women's Strike (Emakumeen Mundu Greba) mugimenduen lider ezaguna. Ibotarrek *ujamaa* esperientziaren azaldu ziotenarekin liluraturik, James berak egindako hitzaurrearekin argitaratu die liburua.

ARGIAko irakurle zaharrenek gogoratuko dute Julius Nyerere, Afrika deskolonizatu nahi izan zuten lider handietakoa. 1962an ordura arte Tanganika zena Tanzania izenez burujabe izatea lorturik, kapitalismotik at funtzionatuko zuen gizartea aldarrikatu zuen, hamarkada hartan beste buruzagi askataile askok bezala.

Hautzaroan bere tribuan auzolana ezaguturik, Nyererek afrikar izpirituko sozialismoari deitu zion *ujamaa*, swahiliz esan nahi omen duena *senidetazuna* edo *familiatasuna*. Ezkertiar askok antzinako baserrietako bizitza gainditu beharreko zaharkeriatzat zeukaten arren, Nyerentzat herritar gehienek aprobetxatu zezaketan sorterrietako komunalismo zaharra, behar modernoetara egokiturik, kapitalismoari izkin eginteko.

Sozialismo afrikarra eraikitzeko -dirurik gabe funtzionatuko zuena, antzinako lur eta kulturaren sustraitua, berdintasunezkoa- bi arazo nagusi aurreikusten zituen Nyererek. Lehena, emakumeen menpekotasuna: "Ezin ukatuzkoa da gaur oraindik emakumeek dagokiena baino lan gehiago egiten dutela soroetan eta etxeetan. Beren sexuagatik jasaten dituzte desberdintasunak bate-re zerikusirik ez dutenak familiei dakarkieten aberastasunarekin". Buruzagiak salatzen zuen emakumeak lanean jarrita gizonak egun erdia alferkerian pasatzen zutela.

Gainditu beharreko bigarren oztopoa zen lurra lantzeko modu zaharkitua, eta uste zuen laborantza modernizatzearekin Tanzaniak jauzi handia egin zezakeela garapen bidean. Horretan laguntzera iritsi zen Tanzaniara Rhodesiatik -gaur Zimbabwe denetik apartheideko erregimenak kanporatuta- baserrien administrazioa ikasitako Ralph Ibbot bere emazte eta bi haurrekin, 1963an.

Ruvuma eskualdeko Litowa herrian Ibbottek *ujamaa* jada martxan aurkitu zuen. Ntimbanjajo Millinga eta beste 14 gaztek Nyererek hitzez esana praktikan jarri nahian zeramatzen hiru urteko kooperatiba gisa autokudeatutako herrixkak, erabakiak bozketaz baino kontsentsuz hartzen ahalegintzen zirenak. Ibbottek aholkulari moduan lagunduko zien ondorengo sei urteetan, baina atzeritar zuria izanik boto eta erabakitzeko ahalmenik gabe.



RDA Ruvuma Garatzeko Elkartea antolatatu zuten eskualdean *ujamaa* zabalteko. 1969rako 17 herrixkak osatzen zuten RDA, batzuk 80 familia baino gehiagokoak. Beharrezko janari guztia herrian ekoizten zuten, etxeak beraiek eraikitzen buztin eta zurez, dirua eskuratzeko -kanpotik tresnak eta beste erosi ahal izateko- tabakoa lantzen zuten, eskolak eta osasun guneak eraiki, soroak ureztatzeko erretanak eta iturriak, zerrategiak, laboreak ehotzeko errotak...

Beste herriren batetik *ujamaan* bizitzera etorri nahi zutenak, hiru eguneko ikastaroan hartzen zituzten, gero sei hilabeteko probaldian onartzen beren familiekin etorrita eta azkenean, dena ondo bazihoan, etxea eraiki zezaten lur mutur bat ematen zieten.

Auzolana versus burokrazia

Liburuaren hitzaurrean Selma Jamesek nabarmendu du andrazkoen ahalduntzeko Ruvumako *ujamaa* herrixketan egindako ahalegina. Asteroko batzaurrean errazten zitzaizen hitz egitea, beren interesak kontutan hartuz. Etxeko lanak eta haurren zaintza herrian astero banatu beharreko lanen artean kontatzen ziren. Iturriko ura ekartzearekin emazte eta hurrei kendu zitzaizen ur garraioan ibili beharra.

Uztak lagatzen zituen diru pittinak berdintasunez banatzen ziren, eta partiketan sartzen ziren zaharrak eta ezin-duk ere, laboreak piztietatik babesten



“Ujamaa, the hidden story of Tanzania’s socialist villages” liburutik ateratako argazkia Ruvuma eskualdeko Litowa herri autogestionatuan dago egina 1969an. Eskuinetik hasita, Ralph Ibbot, RDA Ruvuma Development Agency elkartearen sortzaile nagusi Ntimbanjayo Millinga eta Ado Mgimba. Urte hartan bertan Julius Nyerere, sozialismo afrikarraren teoriko eta sustatzailea, galtzaile atera zen TANU alderdiaren komite zentralaren bozketan eta RDA desegitea erabaki zen. Historia liburuan bildu duen Ibbot Glasgown bizi da 90 urterekin. Millinga 2008an hil zen 69rekin.

eta herriko ume eta gaixoak zaintzen laguntzen zutelako.

Umeen hilkortasun tasa asko jaitsi zen. Litowako eskolara hasi ziren etortzen inguruko herrietako haurrak. Etxeetako bortizkeria desagerrarazten eta emakumeen estatusa hobetzen aurrerapen handiak egin ziren.

Honaino RDAko 17 *ujamaa* herri haie-tako esperientzia, Ibbottek kontatua. Bai baita *ujamaa*ren bestelako bertsio bat, zabalduena eta *Wikipediak* berak *Julius Nyerere* sarreran kontatzen duena. Alegia, Nyerere herri txikiak herri berrietan biltzera bortxatu zituela, 20 milioi lagun 1970ko hamarkadan, eta ingelesez *villagization* deitu esperientzia honek sekulako porrot ekonomiko eta humanitarioa eragin zuela, goseteaz gain Tanzania xirotasunean murgilduz.

Kontua da elkarri lotutako bi espe-

rientzia oso ezberdin bizi izan dituela Tanzaniak, Ralph Ibbotten liburuak erakutsi duenez. Lehenbiziko 17 herri autokudeatuen haria, Tanzaniako Ruvuma eskualdean RDAk biltzen zituen haiena, 1969an eten zuen TANU alderdi bakarreko zuzendaritzak. Eta ondoren izen berarekin bortxaz agintariak ezarritako sistema zentralizatu eta homogeneoa oso bestelako zerbait zela.

1969an Tanzaniatik alde egin behar izan zuen Ibbott familiak. Eskoziako Glasgow Greenock auzo txiroan aritu zen gizarte laguntzaile bezala, ahaleginduz inguru hiritar andeatu batean aplikatzen *ujamaa* sisteman bizi izandakoa. Millinga eta Ruvumako beste lagunekin beti atxiki zuen harremana, diskrezio handiz, hauei kalterik ez eragiteko. Eta Glasgowntik *RUDA Tanzania* izeneko elkartasun talde txiki batekin eskola,

nekazaritza eta abarretako proiektuak finantzatzen laguntzen jarraitzen du.

Ralph Ibbottek dioenez, Nyerere beti aldarrikatu zuen RDAko 17 herririkak zi-rela sozialismo afrikarraren eredu, baina TANU alderdiko eliteak arriskutsutzat zeuzkan, komite zentralako kide asko hasiak ziren aberastasuna eta agintea metatzen: *ujamaa* igualitarioak eredu lanjerosak ziren. Bestalde, kooperatiba haietan eskupeko eta komisio ezkutuek ez zuten funtziontzen, eta TANUn, aldiz, ustelkeria zabaltzen ari zen.

Beste askotan legez, alderdi nagusiko aparatuko funtzionariak ideiarene jabe eginda *ujamaa* bataiatu zuten justu kontrako norabidean antolatutako operazio zentralizatua. Autogestiozko esperientzia ahazturak estaliko zuen betiko, baldin eta interneti esker Ralph Ibbotten lekukotasuna zabaldu ez balitz. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Rafael Berrio, abeslaria

«Gauza izugarriak umorez esan ezean pedante bihurtzen zara»

Etengabe jolasean ari denak batzuetan ez daki jolasean ari denik. Tarteka soilik jolas egiten duenak ez daki jolasak ez duela etenik. Beti dago norbait zurekin jolasteko prest.



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

David Bowiek ilea moztu zuen egunean hasten da historia X. Montoiarentzat. Zuretzat?

Ni jaio aurretik hasten da nire historia. Aitonaren aldetik ijitoak ziren. Aralar inguruan ardiekin egiten zuten lan, erromintxelaz mintzo ziren... Aitona omen aita ijito eta ama paio baten arteko lehen fruitua. Artista hutsa gitarra jotzen. Gure aita bezala. Los Panchos-en gisako talde bat zeukan aitak. Berarekin ikasi nituen lehen akordeak. 60ko hamarkadan, gurasoek aldi baterako Parisera erbesteratu behar izan zuten eta, itzuleran, Jacques Brel, Edith Piaf eta Aznavour-en kanteak laguntzen zieten aitaren boleroei. Anaia eta biok rocka entzuten hasi eta estatu kolpea jo genuen, ordea. Lou Reed-ek belarriak ireki eta begiak itsutu zizkigun.

Madrilgo mugidaren oihartzunak zugan sentitu arte.

1980.ean, Donostian, laupabost talde ginen beste horrenbeste aretotan jotzen genuenak. Gaztelaniaz kantatzen genuen, punk koloretsua egin arren oso "pop"-ak ginen, oso friboloak. Euskal Rock Erradikalaren olatu apartsuak hondoratu gintuen. Euskal kulturaren

egitura guztiak berehala antolatu ziren olatu hori babestu eta bultzatzeko. Lezurik gabe geratu ginen, zokoratuak, entsegu lokal gris eta hezeetara konfinatuak. Donostiako eta Bilboko musikari asko joan ziren Madrilerara bizitzera. Agian horixe egin behar nuen nik ere, baina koldarra izan nintzen.

Ez nintzen Donostiako musikari gehienak bezain familia onekoa, ez neukan baliabiderik, Madrilen babak eltzetik nola aterako nituen ez jakiteak abentura galarazten zidan. Gainera, banuen Donostian ogi papurrak behintzat iritsiko zitzaizkigun esperantza. Putza! Hamar urte egon ginen lokalean bazterturik.

Ordutik datorkizu "artista madarikatua" -ren etiketa?

Baliteke. Jotzen daramatzadan urteak aintzat hartuz disko gutxi dauzkat argitaratuta. Ibilbide ezegonkor eta irregularra da nirea. Ofiziokoek, musikari eta kritikariek, publiko orokorrak baino gehiago ezagutzen naute. Dena etiketatzen den mundu honetan, gutxiengo baten estimatzen dituen eta gutxi saltzen dutenak jotzen dira artista madarikatutzat. Askok dibertitzen nauen kontua da. Gustatu egiten zait kutsu *underground*

hori. Are gehiago, elikatu egiten dut. Ez dakit ez ote dugun inposatu diguten papera betetzen bukatzen, edo denak laketzeko gisan ez ote diogun gure buruari gainontzekoek guretzat nahi duten rola ezartzen. Prestigioa ematen dit artista madarikatua izateak. Eroso sentitzen naiz bazterrean, ertzeko bideak urratzen. Ez daukat beste erremediorik. Segur aski askoz hobeki egongo nintzateke *mainstream*-ean baina ezin dut. Askatasun handiagoa dudala? Marka litzateke lokatzetan ibili eta nahi dudana ez egitea! Hala ere, ez dut sinesten *mains-*

Rafael Berrio

1963, Donostia

Kantautorea, konposatzailea eta letra-egilea. UHF, Amor a traición eta Deriva taldeetako kide izan ostean, bakarkako ibilbideari ekin zion. *1971*, *Diarios* eta *Paradoja* dira bakarkako hiru diskoak. Bere kantuez gain, Mal de Ojo, Mikel Erentxun, La Oreja de Van Gogh, Joserra Senperena edo Sole Giménezentzat ere idatzi ditu abestiak.



tream-eko talde baten askatasun faltan. Zauden lekuan zaudela, beti dauzkazu loturak eta beti nahi duzuna egiteko zirrirituak.

Noren esku daude arrakastaren zirrikituak?

Ez baduzu arrakastarik, zure errua da, ez publikoarena. Ez naiz publikoa ezjakina, ardia, edo kontzertu txikiez paso eginzalea dela uste dutenetakoa. Auzo-lotsa sentitzen dut musikari lagunak kontzertu eta publiko faltaz kezkatzen entzutean. Publikoa esaten dena baino askoz argiagoa da. Ez dut sinesten arrakasta konpainiek diseinatutako operazio matematikoetatik datorrenik. Arrakastak beti du oinarri bat. Besterik da oinarri hori gustatzen zaizun ala ez, kritikagarria den ala ez, zure baloreetara moldatzen den ala ez... Arrakasta beti da zerbaiten ondorio. Arrakastaren inguruko topikoak desmuntatzeko ordua da. Egin kantu onak, idatzi zorrotz, konposatu gogoz, eta goiz ala berant, egingo dute aurrera.

Hortik bizi nahi duenarentzat, alta, berant beti da berantegi.

Musikatik bizitzeak arrosatik bezainbat du arantzatik. Kezkatu behar ez zenukeenaz kezkatzen zara: zenbat jende etorriko den kontzertura, zenbat diru ateratzen duzun diskoko, *merchandising*-a egin dezakezun... Musikari batek ez luke horretan indarririk, bururik eta denborarik galdu behar. Ez luke disko eroslea bezero bat bezala tratatu behar. Ez dut saltzailea bihurtu nahi. Ez dut ezer saldu nahi. Ez dut etengabe sare sozialak elikatzen ibili nahi ahantziko ez nautela ziurtatzeko. Are gehiago, Facebooken nago baina sare sozialak tranpa direla uste dut. Benetan interesgarria den jendea ez dago sare sozialetan. Horregatik saiatzen naiz diskoa atera eta sare sozialetatik desagertzen. Sinetsida-egun berean prentsaurreko bat eman, kontzertu bat jo, hoguei disko firmatu eta hamar "datsegit" jasotzen badituz nire buruaz tximetaraino oheratzen naizela. Disko bat kaleratzean ez diezadatela diskurtsorik eskatu, ezin dut nire letretan esaten dudana baino gehiago esan. Ofizio asko izan dituz, orain musikaz bizi naiz, baina nahiago nuke erabat askea izan eta diskoak, "klientela" zaintzeko obligaziorik gabe, sudur-puntan jartzen zaidanean atera.

Kaxoian

"Kantatu ezingo nukeen kantu errepertorioa daukat kaxoian gordeta. Kantu estandarragoak dira, estilo-ariketa bezala baizik balio ez didatenak, baina horrek ez du esan nahi beste artista baten ahotan ederrak izan ezin direnik".

Zergatik idatzi

"Lagunentzat idazten dut. Sekula ez niretzat. Niretzako balitz, aski nuke pentsamenduari bide egiten utzita. Idaztea oso ekintza desatsegina da, obsesionatzeraino urduritzen nauena. Askotan galdetzen diot nire buruari zergatik idazten dudana, idaztea edo ez idaztea gauza bera bada, denak ahantzuran hondoratuko bagara".

Bohemioak

"Gustatzen zait bohemian bizi den autorearen irudia, muga-mugan bizi denarena, ardo arrunterako justu-justu iristen zaionarena. Gustatzen zait horrek sortzeko akuilatzen duela sinestea. Krisi santu honen garaian krisi aurretik baino askoz kontzertu gehiago eman dudalako izango da".

Zer da kantu on bat?

Kantu gogoangarri bat. Urtetan zehar, belaunaldiz belaunaldi, memorian gordetzen dena. Errepika itzel bat hauspotzen duten bertso bikainak. Nik oraindik egin ez dudana. Etengabe bilatzen dudana. Kantu on horren ametsari zor diot urte osoan letrak idaztea. Kantu baten bertso batekin korapilatzen naiz orain, bestearen errepikarekin gero... Ez dut sekula letra bat hasi eta buka idazten,



kaieran metatzen joaten naiz, eta dozena bat letra ongi bideratuta dauzkadanean, lokalera sartu eta gitarraren sokei tiraka hasten naiz. Letrak eta akorde progresioak bat egiten dutela susmatzean, giro berezi baten txinparta antzematean, mataza askatzen saiatzen naiz, hitz bakoitzari melodian bere habia egiten... Biak batera, hitza eta musika. Zergatik abiatzen naizen hitzetatik? Kantautore bat naizelako, ez pop kanta-



“Disko bat kaleratzean ez diezadatela diskurtsorik eskatu, ezin dut nire letretan esaten dudana baino gehiago esan”

ri bat. Musikatik sortzen hasten denak melodiari ematen dio indarra, hitzetatik ekiten dionak letrari. Nire ustez ezinezkoa da sekulako letra erditzea aurrez sorturiko melodiaren gainean. Enkarguzko hitz mordoxka idatzia naiz agindutako doinuetan oinarriturik. Horregatik dakit klitxerik, patroirik eta mugarik gabe, une horretan esan nahi dudana esan nahi dudana gisan esanda soilik idatzi dezakedala letra ona.

Zure hitzetan existentzialismoa eta umorea, umorea eta existentzialismoa.

Gauza izugarriak umorez esan ezean pendantea bihurtzen zara. Umora fina eta zeharkako heldulekuak ditut gustuko. Gaien aurrez aurreko trataera ez da artistikoa, baldarra da. Gustatzen zait hasi eta buka dena koherentea izatea, dena ulergarria. Letra inpresionista gehienek ez naute konbentzitzen. Diego Vasallo bakarra dago munduan, irudi sortzaile

itzela. Beste askoren irudi eta esaldi solteei, ordea, ez diet sinesgarritasunik aurkitzen. Ez da hori nire idazteko modua. Schopenhauer, Cioran edo Pessoa irakurtzeko “zoritxarra” izan baduzu, ez espero pentsamendu baikorrik. Horixe da literaturaren pozoia. Ez daukat bereziki nirea den burutazio distiratsurik. Edozeinek pentsa dezakeena agertzen saiatzen naiz. Mundu guztiak buruan dituenak kantatzeko naiz kantautore. Aurrez pentsatu

baina esateko gai izan ez garena entzun edo irakurtzen dugunean identifikatzen gara. Horixe gustatzen zaigu.

Gustatzen zaizu zure letretako pertsonaia eta autorea nahasteko tentazioa?

Tentazio hori elikatzen dut etengabe. Interesatzen zait jendeak pertsonaia autorea dela eta autorea pertsonaia dela pentsatzea. Errealitatean bistan da oso ezberdinak direla. Ez naiz nire letretako desesperatua, ez naiz maitasunaren antipodetan bizi, baina komeni zait nire publikoak kontrakoa sinestea. Ez naizen arren, interesgarriagoa bihurtzen nau horrek. Distantziak distantzia, oso autobiografikoa naiz, hala ere. Etengabe ari naiz niri buruz kantatzen. Nire hitzen irakurketa arretatsutik ondorioztatu liteke nor naizen. Arrastoa uztearen tema handiustekoa suertatzen zait, ordea. Konformatzen naiz nire ilobei nor nintzen jakiteko balio badie.

Bere publikoa batetik bestera darabilen artista zarela pentsatuko dute zure ilobek.

Artistak independentea izan behar du, bere publikoa xaxatu, probokatu. Lou Reedek, *Sally can't dance* diskoarekin arrakasta gorena lortu zuen, baina ez zitzaizkion beste munduko kantuak iruditzen, eta arrakastarekin asaldaturik, bi orduko zarata zekarren *Machine Music* entzungaitza argitaratu zuen hurrena. Probokazio hutsa. Orain arte, orkestrarekin kantatzen zuen frantses kutsuko kantautorea nintzela uste zuen publikoa neukan, eta izorratzeagatik, rock disko bat argitaratu dut. Hala, orain arteko diskoak gustuko zituenari ez zaio disko berria gustatu eta disko berriarekin txundituta gelditu denak ezin ditu



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**OFF THE RECORD:
Paradoxa**

Liburu-dendan zitzatu gaitu musikariak. Paradoxa, bere azken diskoaren izenburua bezala. Elkarrizketa ostean, argazki sesiorako ardo kopa eskatu, eta bizitza guztia han eta hemen jotzen pasa arren ez duela sekula Iruñean jo aitortu digu. Paradoxa, bere azken diskoa bezala. Agur esan, eguzkitako betaurrekoak jantzi eta euria hasi du Donostian. Paradoxa.

.....
aurrekoak entzun. Izugarri dibertitzen naute probokazioaren osteko erreakzioek. Orain artean neuzkan jarraitzaile guztiak galtzeko helburua dudala diot erdi-broman. Orkestra eta guztiko bi disko egin ondoren, rock disko bat aterra dut, eta Joserra Senperenarekin zarzuela bat egitekotan naiz orain. Gauzak galtzeko beldurra galtzean egiten dituzu apustu interesgarrienak.

Urteen joana eramatea da zure apustuetako bat?

Oso gaizki daramat denboraren joana. Afrusa da. 30en eta 40en krisiaz mintzo da jendea, baina hor ez dago krisirik. 50 betetzean, aldiz, zure gorputza huts egiten nabaritzen duzu, oroitzapenak geroz eta atzerago geratzen direla ohartzen zara, geroz eta esaldi gehiago hasten dituzu "Duela 30 urte..."-rekin. 52 urte dauzkate eta ez zaidala ia ezertarako denborarik gelditzen iruditzen zait. Dena bukatzen ari den, dena laster bukatuko den, sentipena daukat. Zahartzeak gauza bakarra du ona: berezi zeure akats eta gabeziek egiten zaituztela ohartzea. Gaztaro osoa pasa dut nire akatsekin amorratuta, kantatzeko eta idazteko nituen ezinekin obsesionatuta. Oso berandu jabetu naiz ezin horiei esker nintzela artista berezia. Orain ez zait axola gaizki kantatzen dudala esaten badidate. Bada-ki horixe dela nire kantatzeko modua.

Ez da gutxi.

Elkarren antipodetan dauden bi poloren artean bizi gara. Polo batean aldatzen doan oro dago eta bestean aldatzen ez dena dekadentzia bihurturik. Ez da samurra norbere burua etengabe desegiten denaren eta etengabe eboluzionatzen duenaren artean kokatzea. Gaztetan ez daukazu pentsatu beharrik zein trenetan zoazen baina behin adin batetik aurrera... Bide erdian noraezean dagoen mozoloa sentitzen naiz. Eboluzio frenetiko bat ikusten dut espaloi batean eta behialako existentzia baten abandonatutako arrastoak parekoan. Gizalegea da. Horixe baita zahartzea, bere burua etengabe deseginez mundua etengabe aldatzen dela onartzea. Horregatik ahaztuko gaituzte denak oso azkar. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD
Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

SIGACUS
© 943 453 588 · www.sigacus.com

Ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA
Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantzako ogiak
Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

urtxintxaz blai
mundua koloretan

egin zaituz urtxintxakide
www.urtxintxaeskola.eus
f Urtxintxa Eskola @urtxintxaeskola

Berta Cáceres bizirik

Hondurasko Agua Zarca proiektu hidroelektrikoaren kudeatzaileek, “Ibaiak ez dira saltzen, zaintzen eta defendatzen baizik” leloa froga bezala erabili zuten Berta Cáceres eta beste bi aktibista auziperatzeko, indarkeria bultzatzeagatik.

2014an Berta Cáceresek bere egoeraren berri eman zuen *Pikara* magazinean. Hondurasko Estatuaren, armadaren eta enpresen manipulazio eta kriminalizazio saiakerak deskribatu zituen. Orain dela aste batzuk tiroz hil zuten Berta. Gobernuaren krimen politikoa izan zela argi dute bere senide eta lagunek.

“¡Viva Honduras!”, oihukatu zuen 2004an Federico Trillo Espainiako defentsa ministroak El Salvadorreko tropak agurtu behar zituzenean. Hanka-sartze horrek ertamerikarreganako interes eta errespetu falta adierazi ei zuen. Nori axola Honduras edo El Salvador? Zer dakigu herri horiei buruz? Bortizkeria handia dago. Nikaraguara lehendabizikoz joan nintzenez, nire familia kezkatu zen, oso herrialde arriskutsua zelakoan. “Ez, Nikaragua lasaia da, El Salvador, Guatemala eta Honduras dira arriskutsuak”, lasaitu nituen. Estatubatuarrei iseka egiten diegu, Mexiko eta Espainia nahasten dituztelakoan, baina guretzat ere berdinak dira Nikaragua, Honduras edo El Salvador. Zer ideia datozkigu burura? Gerrillak, txirotasuna, delinkuentzia antolatua.

2009an Hondurasek estatu kolpea babestu zuten AEBek. Subiranotasuna defendatzen duten gobernu eta erakundeak AEBen etsaiak izan dira beti. Berta Cáceresen eraiketaren berri izan nuen Twitterrean jo nuen eta, besteak beste, galdetu nuen ea Felipe Gonzálezek Hondurasera joateko asmorik zuen, hango disidentziarekin elkartzeko. Podemosek Espainiako Legebiltzarreraren eraman zuen Berta Cáceresen hilketa-aren salaketa. Ada Colauk dolu ekintze-



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Euskal Herriko zein Estatu-ko gizarte mugimenduetan Berta Cáceresek bizirik dirau. Bilboko martxoaren 8ko manifestua inoiz baino internazionalistagoa izan zen. Errefuxiatuen aldeko elkartasuna adierazi genuen feministok, Europa xenofoboa gaitzetsi genuen, Turkiako poliziak hildako kurduak gogoratu genituen, baita Berta Cáceres ere

tan parte hartu zuen. EH Bilduk sare sozialean bidez gaitzetsi zuen krimena. Badaezpada, Google “PSOE Berta Cáceres” idatzi dut. Ez dut ezer aurkitu. Ezta “PNV Berta Cáceres” idatzi dudanean ere. Multinazionalen lagunek (edo zerbitzariak) disidentziak bakarrik aipatzen dituzte ekimen ezkertiarrei zilegitasuna kendu nahi dietenean.

Euskal Herriko zein Estatu-ko gizarte mugimenduetan, ordea, Berta Cáceresek bizirik dirau. Bilboko martxoaren 8ko manifestua inoiz baino internazionalistagoa izan zen. Errefuxiatuen aldeko elkartasuna adierazi genuen feministok, Europa xenofoboa gaitzetsi genuen, Turkiako poliziak hildako kurduak gogoratu genituen, baita Berta Cáceres ere.

Ibaien eta basoen defentsa antikapitalista, antikolonialista eta antipatriarkala dela azaltzen zuen berak. Militarizazioak naturaren, herri indigenen eta emakumeen gorputzen gaineko kontrol eta bortizkeria dakarrela. *Pikaran* kontatu zuen bere buruaren kontrako mehatxuek kutsu sexuala zeukatela. Eta emakume indigenek ibaien garrantzia espiritualaz azaltzen zutenean –neskaten espirituak uretan bizi direla– botere patriarkal eta arrazistaren isekekin topo egiten zutela.

Idurre Eskisabelek dio zapalkuntza anitzen sare korapilatsua sortzea dela kapitalismoaren estrategia. Norbanako batzuen militantzia bikoitzez harago, borroken konpartimentalizazio handia sumatzen dut gurean. Kostatzen zaigu frackingaren, etxe kaleratzeen eta feminizidioaren kontrako borroken arteko indarrak batzea. Euskal Herriko diskurtso feministak zeharo antikapitalistak dira, baina praktika politikoan oraindik borroken interseksionalitatearen ideia hori gauzatzeko pausoak falta zaizkigu. Hori izan daiteke, gurean, Berta Cáceresen ondarea. ■

Trazabilitateak

Azken boladan geroz eta zaila-
goa egiten zait edozein produk-
tu erostea. Duela hainbat urte
baliagarriak eta goxoak zirenak egun
zalantzakoak dira. Aldaketa? Produktu
soila begieste hutsetik elementua bere
osotasunean ikustera pasa naizela.

Salmenta-guneetan gauza ugari di-
tugu eskura. Produktua ikusi, ukitu,
dastatu eta, poltsikoko sosei neurria
hartu ondoren, hura erosi edo ez eraba-
kitzen dugu. Bidean zein giza baldintza-
tan sortu eta zenbat kutsatzen duen ez
da begiez ikusten, baina sentitzen den
gauza da. Guk zuzenean agian ez, baina,
ziurrenik sorkuntza prozesuaren ingur-
uan dauden pertsonak eta tokiek beste
zerbait esango zuketean.

Trazabilitatea produktu baten sor-
kuntzan eta bizitzan emandako urra-
tsen DNA da: hornitze katean elemen-
tuaren historia eta jarraitutako bidea
biltzen duen informazioa. Datu meta-
keta hori zulo beltzez beterik dago, ez
baitira laneko zein bizitzaren baldin-
tzak adierazten; langileek soldata duina
kobratzen duten; produkzio guneetan
bestelako herrialdeak zapaltzen dituz-
ten; ingurua kutsatzen den... Informa-
zio delikatua da, itsusia izan daiteke eta
bereziki ez ongi ikusia gure kontsumo-
rako gizarte pribilegiatu honetan.



Nora Barroso

ARGIAKO BLOGARIA

@axala_n

Erosle bezala ardura daukagu, gure erosketekin komertzio mota bat edo bestea saritzen dugu

Erositako produktu baten biziak
inguruan duen eraginak ikaragarritzko
garrantzia du. Lehenago, elementua
beste sakontasun batez ez ikustearen
zergatiak kanpotik eta barrutik etor-
tzen ziren. Alde batetik produktuen
distirak, zapore goxoek eta modak
itsutzen ninduten. Baina ezin da nor-
beraren erantzukizuna baztertu, eta
zentzu horretan, nire kasuan, erosota-
suna eta utzikeria izan zen ezaugarririk

nabarmenena. Aurrean nuen produk-
tua besterik ez nuen ikusten, eta soilik
nire buruarengan zuen eragin zuzena
sentitzen nuen. Baina, zer dago 5 euro-
ko kamiseta eta 10 eurotako zapatilen
atzean? Edo marka ospetsuen iraba-
zi handien atzean? Galdera horien
erantzunak zuzenki daude produktuari
lotuak.

Erosle bezala ardura daukagu, gure
erosketekin komertzio mota bat edo
bestea saritzen dugu. Gure herrian
manifestazioak, grebak, elkarretara-
tzeak eta halakok egiten ditugu haurren
eskubideen alde, emakumeon zapal-
kuntzaren kontra, lanerako baldintza
duinen alde... Oihu horiek ito egiten
dira testuinguru horretan, produktuak
sortzeko prozesuan parte hartzen du-
ten pertsonak edo herrialdeak bezala.

Testuinguru horretan, trazabilitate
zuzenagoa eta gardenagoa eduki behar-
ko genuke eta informazio guztiarekin
aukeraketa egin. Bitartean, zerbait
erosteko garaian aukeraketa pausa-
tua egitea proposatzen dut; besteren
artean, inguruari diogun begirunea eta
kontzientzia maila geroz eta handiagoa
bilakatu dadin. Jaten, janzen eta erabil-
tzen dugun hori ere gu gara. Produktu
zehatzen kate-begien parte gara, gu
baikaude katearen bukaeran. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara
zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko
erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta
euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi
horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.


foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Espainia “navarrizatua”



Iván Giménez
KAZETARIA
@IvnGimenez

ruña, 1996. Javier Otano Nafarroako presidentearen kontu suitzarrak *Diario de Navarra*-ren portadan ageri da, eta egun gutxira PSNren behin-behineko arduradun nagusiaren ahotsa (Pérez Calvo gaixoa, denon burutik aspaldidanik ahaztua): “Gaur egun, UPN da Nafarroa modu hobekien ordezkatzeko duen alderdia”. Beraz, alderdi batek beste alderdi bat hobea dela esanez. Hau da marka! PSNren labela, azken finean.

Madril, 2016. Felipe Gonzalezen sententzia definitiboa: “PP eta Ciudadanos-en gobernuak hoberena da Espainiarentzat, PSOEren abstentzioarekin”. Egundak batzuk geroago, *Salvados* telebista txundigarria, Esperanza Aguirre eta Josep Piqué: “PPk erraztu behar du PSOE eta Ciudadanosen arteko gobernu bat”.

Bi eszenatokien artean, 20 urte, 400 kilometro, protagonista ezberdinak. Hala ere, asmo bera, beldur bera, irtenbide bera. Nafarroan, 1996 hartan sortu zen gaztatxoaren teoria (Miguel Sanzen hitzak baimenik gabe erabiliz). Espainian, aldiz, koalizio handiaren oinarriak gaur finkatzen ari dira. Gaztatxoaren koalizioa? Teoria handia? Espainia “navarrizatua”?

Nafarroan, orain dela 20 urte, betidanik agindu dutenak konturatu ziren kontuak ez zitzaizkiela betiko aterako, eta gaztatxoaren teoria sasizientifiko

fikoa baliatuz, basko-gaiztoak Diputazio Jauregitik urrun mantentzeko hil ala biziko helburuari ekin zioten. Zelai-jokoa hain modu zorrotzez markaturik, ez zuten kontuan hartu beste aldean utzitako gunea erabat askea geratzen zela, *Corralito foralaren* kanpoan zeuden esku. Gune aske hura ez zen beste munduko gauza, jokalaria ahul gutxi zeuden eta elkarren artean ezinikusiak. Gune askea, baina ez hutsik, orduan.

Denboraren poderioz, zelaiaren alde bera partekatetik ustelkeria eta bezero-sareak elkarrekin kudeatzera igaro ziren, helburuak nahasiz eta izaera bera eta banaezina bihurtzeraino: UPPSN. Alta, 1996ko gune aske eta basamortu hartan gero eta jende gehiago zegoen, haserreago, indartsuago... ahulduak izatetik ahalduak egotera, gaztatxoaren teoriari esker: bat bitan banatu zuten, eta bigarren zati hura gazta erdia baino gehiago izatera iritsi da. Ez bat-batean, ez oso azkar, ez oso seguru... Ez betiko?

Bilakaera horrek ez ditu 20 urte beharko Espainian gertatzeko, askoz azkarrago doalako, premia handiagoa dutelako, ezin zakarragoak direlako. Deabruak serio demonio datoz, ziztu bizian, Kongresuaren ateak birrinduz, mototsak, rastak eta kamisetak erakutsiz.

Lotsarik gabe.

Munduko gauzarik arruntena balitz bezala.

Kaletik baletoz bezala. ■

Ornitologiaz



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Arabako Natur Institutuko kide den Briani aditu diot datua: hegazti migratzaileen %80 hiltzen dira bidaian; %20k bakarrik lortzen du udaberria berriz ikustea. Urtero egiten dute bidaia hegazti horiek, bizitzeko giro goxoa baten beharrez, eta heriotza topatzen dute gehienek. Migratzea bizirik irauteko estrategia bada ere, oso garesti ordaintzen dute neguaz bialdeko pasaporteak: hamarretik zortzi gelditzen dira bidean.

Datu zehatzik eskaini gabe, antzeko mezua eman nahi izan bide die Donald Tusk-ek Europaz kanpoko migratzaileei: “Do not come to Europe”.

Ez genekien –neuk behinik behin ez nekien– zoologiaz eta, are gutxiago, ornitologiaz jantzia zenik Europako Kontseiluko presidentea. Ez arriskatzeko sosa eta bizia aholkatu baitu, kasik tonu neutro batez agintzeraino. Ez egiteko alferreko saiakerarik: “It is all for nothing”.

Ezagutzen genuen euskaldunok, Mikel Laboaren ahotsean bereziki, Joseba Sarrionandiaren hegazti errarien paradoxa, leihoan pausatutik, argia eta itzala bereizten diren lekuan. Argia eta itzala pausatuta dira Europak espres jarritako hesian, errefuxiatuak eta migratzaile ekonomikoak bereizten diren lekuan. ■

Inbidia, in bidea

gande goiza polita zen hasieran, aste osoko partez, behingoz ateri. Etxetik hiri erdirainoko bidea egiteko artean lainotu eta eurixka txar bat hasia zuen, luza gabe emari gero eta handiagoko uharra.

– Sinetsi duzu? Ein? Aro ederraren menturan zinen?

Okindegira sartu eta lerroan beha jarri orduko, beste bezeroez pasoka niri zuzendu zitzaidan zuzenean dendaria. Baiki hala zen: ene baikortasun eta ausardian, primaderan janztekoa nuen soinekoarekin atera nintzen erauntsiak iragarriak ziren egunean. Tupustean erantzun nion, bertsolariak bezala:

– Sinesteari ez litzaioke sekulan utzi behar, horrela dira gauzak gertatzen.

Bai, probokazio puntuarekin nuen jantzia soinekoa, esperantza sotil batekin baina esperantzarekin ekinik. Biharko eragin daiteke primadera. Holakoa naiz. Buru errea. Aterkirik gabe ibiltzen naiz, otsaila betean berdin. Igande goiz apaletan kuzinatzen jartzen naiz amantalik sekulan jantzi gabe. Mus partidatan, eskutik izan gabe, errege-xangoekin enbidia botatzen dut handian. Eskailerak neke ahalik eta gutxienekin igotzeko teknika psikodolikoak baditut. Semaforoa gorrian luzatzean, ene baitan (batzuetan ozenki) berde! ber-de! ber-de! errekeritzen dut oina azeleragailuan. Lanera noa gogoan eramanki ez da besterik posible, irabaziko dugu. Urtero ahalegintzen naiz elukubraziotzat jotzen den egitasmo zerbait garatzen. Betiere nihaur naiz, ene buruari fidela, amets handiz mozkor, probetan, nehork ez didalako deus egina presta eskainiko.

Harrigarria iduriko bazaizue ere, batzuetan lortzen dut. Ez dut bukatzen bazkari ordua aitzin jertsea urin eta krema patchwork bat eginik. Olio ziliportez blai naizenean, futitzen naiz. Semaforoa lasterrago iragaten da



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

berdera. Parekoek zalantzi ttanttoak tiratzen uzten naute. Urterik hobere-netan aitzinamendu zenbait egiten da irakasle nahiz ikasleen probetxuko. Hiru solairu igotzeko 35 urrats luze eta 65 segundo aski dira. Ez beti baina batzuetan, garaipen tipien pozaz, marka ezdeus gaitzak; kausitzen dut, sinesten dudanean, entseatzen naizenean, euforia puntta pizten zaidanean, ibiltzen naizenean, huts egiten eta berriz hasten.

Alta, ene marka Euskal Herriak gaintitzen du alaire! Eta zer inbidia nirea! Jelosia handia dizuet denei, bai, orain ene animo guztiek hutsaren ondokoak baitirudite.

Bekaizkeria gaitza eman didazue azken egun hauetan piztu euforia baina batez ere ilusioa eta gogoia dela eta. Sendi zaizue, ez ukatu, eta pozgarria da, hilabeteetan sentitu direnen ondotik. Igarri zaizue, belodromoan, negarretan egon zaretenean, nihaurek hogeitau urte nituenean bezala eta aldi honetan ere berdin aritu naizen bezala. Bai, nik ere negar egin dut, galdurik nuen esperantza berreskuratu dudalako, berriz hasi naizelako sinesten, agian damaturik sinesteari utzirik.

Orain liderra ba omen dago. Ontsa. Oroz gaintetik orain badago laneko tirria, bide egitekoa, ez? Hau jelosia! Solairuak hamarnaka igotzeko heineko ahalmena! Pentsatuko da bakoitzak irabazi –denek irabazi. Hasiko da herri hau hegalka, ausart, eztabaidan ibiliko dira jendeak auzokoekin, berriro, herriz herri, antolatzen, estrategia eta helburu berriak definitzen, proiektuak gauzatzeko. Luzatuko dira eskuak, luzatuko dira urratsak. Doituko dira detaileak. Irabazi tipiak, asmo handiak. Berriz bat. Urteetan egin ez diren aitzinamenduak eginen dira. Horrela da, ezta? Eta ez dugu berriz negarrez aritzeko arrazoirik ukanen. Ein? ■



MUGIKORRARI BEGIRA,
EZ DUZU ERREPIDEA IKUSTEN.

**BADUGU ARRISKUEN BERRI.
ARDURATSUAK IZAN GAITEZEN.**

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Ikasleen segregazioa Gasteizen

HESIAK ELKARBIZITZARI

Gasteizko ikastetxeetan haurrak jatorriaren arabera segregatzen direla salatu berri dute hiriburuko eskola publikoko guraso elkarte guztiek bat eginik. Aniztasunik gabeko burbuilak batetik, jatorri atzerritarreko ghettoak bestetik, gizartea zatitzen eta bi eskola paralelo sortzen ari direla ohartarazi dute. Gutxi-gehiago, Euskal Herrian zabalduta dagoen fenomenoaren paradigma da Gasteiz.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Gurasoen manifestuarekin bat egin dute, besteak beste, Denon Eskolak, ikastetxe publikoetako zuzendarien Sarean elkarteak, sindikatu guztiek, hiriko elkarte sozial ugari eta jatorri aniztetako kolektiboek. Abiapuntu argia du manifestuak: aniztasuna ona da, aberasgarria; egungo gizartea anitza da generoan, sexu joeretan, erlijioetan, jatorrian, kulturetan, egoera sozioekonomikoan... eta halaxe islatu behar da eskolan ere. Finean, eskola da gizar

kohesiorako lehenengo elkargunea eta oinarria; teoritik harago modu praktikoan, ezberdinen arteko hartu-emana- ren bidez, aniztasun hori guztia bizitzeko eta elkarbizitza hobetzeko tresna da. "Ikasgela anitzak etorkizunerako prestatzen ditu haurrak, Gasteizko gizartea anitza delako, eta elkar ezagutzen ez badute, elkarri bizkarra emango diote", dio Maider Ruiz de Eginok. Guraso gasteiztarra eta manifestuaren bultzatzaileetako bat da bera.

Zein da arazoa? Ikastetxe batzuetatik bestera dagoen desoreka nabariak kontzentrazio artifizialak, muturreko egoerak eta zailtasunak sortzen dituela. Gasteizko 20 ikastetxetan egoera "ez normalizatua" bizi dutela mahaigaineratu dute, zentro horietako gela batzuetan jatorri atzerritarreko ikasleen kopurua %30, %50 eta %80 baino handiagoa izatera iristen delako -ikusitu datuak azken orriko grafikoan-. Behin-behineko behar bereziekin etorri ohi diren ikasleak dira,



hizkuntza arloan adibidez, eta maiz zerotik hasi behar du irakasleak horiekin, sarri gainera ikasturte erdian. “Gelan, berdin dio etorkinak edo gorra izan, behar bereziak sortzen direnean, horiei ezin zaie arreta egokia eskaini ikasgela berean behar berezidun 17 ikasle dituzunean. Anitzak guztiok gara, baina ikasle batzuek laguntza zehatzaren premia dute eta gela berean horiek pilatzeak arlo akademikoan eta eguneroko mar txan zailtasunak sortzen ditu”, dio Aitor Idigorasek. Gasteizko ikastetxe publiko batean irakasle da Idigorasek, baita guraso eta Steilas sindikatuko kide ere.

Eskola bat bertako populazioarentzat eta beste bat jatorri atzerritarra dutenentzat; gero eta ageriagoa da joera. “Eskatzen digute hizkuntza ikasteko, kultura onartzeko, hemengo jendea bezala portatzeko... baina betebeharrak ditugun hein berean eskubideak ere baditugu”, aldarrikatu du Samira Bouazzaouik. Marokoa da, 12 urte daromatza Gasteizen bizitzen, eta ia ikasle guztiak jatorriz atzerritar diren ikasgelan du 3 urteko semea: “Familiako kultura etxean ikasten du semeak eta bertakoa ere ikastea nahi dut, hemengo jendearekin aritzea, kalean eta ikastetxean. Berea ere baden kultura honetan hezte nahi dut, gauza asko ikastea... baina ikastetxea etorkinen ghetto bat da, eta hor ez da inoiz integratuko”. Integrazioa eskatzen eta aldi berean horretarako aukera ukatzen dietela sentitzen du Bouazzaouik.

Arrazatik harago, klase gatazka

Gaia sakonagoa eta konplexuagoa dela azpimarratu digute elkarrizketatuek. “Etorkinen kopurua da ikusgarriena eta esanguratsuen, baina klasismoa da funtsa –dio Idigorasek–; sozioekonomikoki ahulak diren etorkinak pilatzen direlako, ez Baskoniako jokalarien seme-alabak. Eta aldiz, eskola ghetifikatu hauetan sozioekonomikoki profil baxua duten beste kolektibo batzuk ere ikusiko ditugu, baita premia bereziak dituzten beste ikasle asko ere”. Hezkuntza porroterako bide zuzena da hori, maila sozioekonomiko eta kultural baxua nagusi den ikastetxean adierazle akademikoak okerragoak direlako. “Maila sozioekonomiko baxuko eta altuko ikasleak nahastuko bagenitu, ordea, emaitzak eta batez bestekoa hobetzea lortuko genuke”, gogoratu du irakasleak.

Bouazzaouik kontatu digu hezitzailez osatutako enpresa pribatu bat kontratatu behar izan dutela gurasoek, seme-alaben ikastetxean behar bereziak dituzten haurrei laguntzeko. “Diru asko da guretzat, eta administrazioak jarri beharko luke soluzioa, ez guk”.

Publikoa vs. itunpekoa

Jatorri atzerritarreko ikasleak pilatzen diren Gasteizko 20 ikastetxeetatik, 19 publikoak dira eta bakarra itunpekoa edo kontzertatua: kristau-eskola. “Zer egiten du kristau-eskolak? Hartzen duen etorkin kuota ikastetxe bakoitzean kontzertatu eta gainerako bere

ikastetxeetan bat bera ere ez hartu edo gutxi batzuk baino ez. Beste herrietan ere berdin jokatzen du”, salatu du Idigorasek.

Esperimentua egin zuen Samira Bouazzaouik: semea itunpeko ikastetxe batean matrikulatzen saiatu zen. Gasteizko bost eskolatan jo zuen atea, eta bostetan ezetz erantzun zioten: “Semea musulmana izanik ezin zuela kristau-eskolan sartu esan zidaten; bigarren batean plaza bat oraindik bazegoela baina ez zutela uste nire semeak baldintzak beteko zituenik eta hobe nuela uztea; beste batean oso gaizki hartu ninduten, mespretxuz, kuotak ordaindu behar zirela, semea musulmana banuen eta erlijioa aukeratu nahi banuen eskola publikora joateko... Negarrez atera nintzen. Nire semea hemen jaioa da, euskal herritarra da, eta hemengo beste umeen eskubide berak izan beharko lituzke”.

Jatorritik harago, behar bereziak dituzten ikasleak eskola publikoan pilatzen dira gehienbat, datuek hala diote. Gasteizko Udalaren azken hezkuntza txostenaren arabera, esaterako, 2010-2011 ikasturtetik 2013-2014 bitartean, itunpeko ikastetxeetan Haur Hezkuntzan ez zen behar bereziko ikasle bakar bat ere matrikulatu. “Ikastetxe batzuek homogeneizaziorantz jotzen dute, zentzurik txarrean; ez dute arabiarrik edo kolonbiarrik nahi, eta gorrik ere ez dute nahi, edo ezberdin pentsatzen duenik... Muturreko egoera horretan bizi diren ikastetxeek birpentsatu egin

Klasismoaz mintzo dira, sozioekonomikoki profil baxua duten beste kolektibo batzuk eta premia bereziak dituzten ikasleak ere pilatzen direlako ikastetxe hauetan.

beharko lukete beren hezkuntza eredu. ‘Gure ume euskaldunak ez daitezela kutsatu’: errealitate hori, Gasteiztik harago, leku guztietan ikusi, entzun eta bizi dugu, neurri txikiagoan edo handiagoan”, kritikatu du irakasleak. Eta segregaziorako lehenengo hesia ekonomikoa dela gaineratu du, 2 urteko gelak itunduta egon beharrean urtero diru-laguntzak jasotzen dituztelako dekretu bidez, “eta tranpa horren bidez, ez dute zertan ikasleen harrera orekaturako araua bete”. Alegia, kuotak legalak direla 2 urteko geletan, “eta 200-300 euroko kuotak ezagutzen ditugu”.

Publikoaren eta itunpekoaren arteko desoreka hau ez da naturala, Ruiz de Eginoren aburuz: “Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak esan zuen auzoaren arabera errealtatea islatzen dela, baina ez da egia, auzo berean aurkitzen dugulako ikasleen %70 baino gehiago jatorri atzerriarrekoak dituen ikastetxe publikoa, eta parean, asko jota %5a dituen itunpekoa”. Gainera, Gasteizen etorkin gehien dituen auzoan, auzokideen %18 dira etorkinak, eta beraz, hortik gorako kopuruak ez dira auzoaren isla. Familiak ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea ere argudio labainkorra iruditzen zaio Idigorasi: “Ados, bermatu diezaiegun gasteiztarrei ikastetxea aukeratzeko eskubidea, baina guztiei, ez bakarrik batzuei”.

Itunpeko ikastetxeek hiriaren kohezioari eta integrazioari bizkarra ematen diotela uste du Ruiz de Eginok. “Familia askok uste du kuota bat ordaindu eta horrek eskubidea ematen diola haurra ezaugarri bereziko nahi duen ikastetxera eramateko, eta ez da horrela. Itunpeko ikastetxeen finantzaketa %100 diru publikoz hornitzen da (beste kontu bat da ikastetxeak duen aurrekontuaren %100 ez izatea administrazioak ordaindua) eta horrek joko-arau batzuk eskatzen ditu”, zehaztu du Idigorasek.

Gizarte-kohezioari bizkarra ematen al dioten eta profil jakineko ikasleak behar bezainbeste ez al dituzten onartzen, hori galdetu diogu Xabier Arrieta Arabako Ikastolen Elkarteko lehendakariari: “Inondik inora. Ikasleak hartzerakoan Jaurlaritzak ezarritako baldintzak betetzen ditugu ikastolok, bai lehenengo matrikulan, bai ikasturtean zehar ikastoletara bideratzen diren ikasleen kasuan ere, izan hemengoak edo hangoak. Gehiago esango nuke, borondatea dugu

» **AITOR IDIGORAS, IRAKASLEA:**
“Ikastetxe batzuek ez dute arabiarririk nahi, eta gorrik edo ezberdin pentsatzen duenik ere ez. Muturreko egoera horretan bizi diren ikastetxeek birpentsatu egin beharko lukete beren hezkuntza eredu”

» **M. RUIZ DE EGINO, GURASOA:**
“Ez da egia auzoaren errealtatea islatzen dela. Auzo berean dugu ikasleen %70 jatorri atzerriarrekoak dituen ikastetxe publikoa, eta parean, asko jota %5a dituen itunpekoa”

» **XABIER ARRIETA, ARABAKO IKASTOLEN ELKARTEA:**
“Jaurlaritzak ezarritako baldintzak betetzen ditugu ikastolok. Are gehiago, gure ekarpena egin nahi dugu ikasle hauek gure hizkuntzan, gure kulturaren, gure gizartean sar daitezen”

» **S. BOUZZAOUI, GURASOA:**
“Semeak eta ikaskideek barneratzen dute besteak direla euskaldunak, ‘gu aparteko zentroetan hezi gaituzte’. Hori ez da Gasteizko gizartearen parte sentitzea”

dagokigun etorkin kopurua gurean hartzeko, eta ekarpena egin nahi dugu ikasle hauek gure hizkuntzan, gure kulturaren, azken batean gure gizartean sar daitezela. Bermeo edo Ordiziako ikastolak aipatu dizkigu, baita ikastola herriko ikastetxe bakar duten Gipuzkoako bost herriak ere; “integrazio eredugarria” erakusten duten kasuak, Arrietaren hitzetan. Ikasleen harrera orekatuaren alde mintzatu zaigu, aberasgarria delako eta “aniztasunak ikastetxetik hasi behar duelako”.

Arabako Ikastolen lehendakariarentzat, baina, hizkuntza eredu da koska: “Etorkin gehienak A ereduaren eskolatan dira, publikoan zein itunpekoan, A ereduko ikastetxe horiek dute ghetto bihurtzeko arriskua. Ikasle etorkinak D ereduaren eskolatan badira, integrazioa eta oreka errazago lortuko genuke”. Beste aldagai bat ere jarri digu mahai gainean: “Oreka nahi badugu, publiko eta itunpeko bideratutako baliabideak ere orekatu beharko dira, gaur egun baliabide gehienak publikora zuzentzen direlako”.

Segregazio guneek, ordea, gainditu egin dute A eredu eta momentu hauek gehienbat D ereduko eskoletan ematen da pilaketa. Hortaz, kontrako galdera egin diegu Ruiz de Eginok eta Idigorasi: seme-alabak jatorri atzerriarreko ikasleekin nahasterik nahi ez duten gurasoen argudioa hizkuntza al da? Ruiz de Eginok ez du uste haurra euskalduntzeko balizko traba denik arrazoia, ikastetxe horietatik alde egiten duten guraso asko ere ez direlako euskaldunak. Idigorasek garbi du: haurrak ez du euskara gutxiago edo gehiago ikasiko gelan lauzpabost etorkin daudelako, eta banaketa orekatua balitz, hor inguru legoke gelako etorkin kopurua. “Kezka hau juxtu inguru euskalduneko familietan ematen da –gehitu du–, eta ez du zentzurik, familia euskaldunarekin eta euskaraz bizi bada, hiruzpalau etorkinek ez dutelako eraginik izango, arabiarrez hitz batzuk ikasiko ditu gehienera. Iruditzen zait sakonean ikuspegi etnozentrista eta pisu identitarioa dagoela, sarri arrazakeria, eta euskara aitzakia dela. Zure seme-alabarengan eragin handiagoa izango du 20 eskola-ordutik 12 baino ez izatea euskaraz, Jaurlaritzak martxan duen Heziberri planaren bidez euskara-orduak kendu direlako ingelesaren mesederako”.



Ezker-eskuin: Samira Bouazzaoui gurasoa, Maider Ruiz de Eginogurasoa, eta Aitor Idigoras irakaslea. Matrikulazio bulego bakarra eskatzen dute. Hala, matrikulazioa zentralizatuz gero, ez litzateke ikastetxe bakoitzaren esku egongo eta irizpide ekitatiboak ziurtatzea errazagoa litzateke.

MIKEL G.I.

Baliabideen gaian berriz, azken urteotan eskola publikoan ere baliabi-deak asko murriztu direla gogoratu du irakasleak, aurrekontuan, pertsonalean, azpiegiturretan... Dena den, kontuz ibili behar dela dio, “ikastetxe-ghetto hauek baliabide gehiago behar dituztela aldarrikatzea nolabaiteko koartada ere izan daitekeelako, baliabide asko sartu eta dagoenetan jarraitzeko, eta funtsa ez da hori, eskolaren egoera bestelakoa izan dadin sakoneko politikak aldatzea baizik”.

Etorkizunean lehertu daitekeen bonba

Bazterketak bazterketa gehiago dakar, eskusio gune gehiago, eta berbideratu ezean, Gasteizen eta oro har Euskal Herrian lurzoru arriskutsua ari gara ereiten, elkarrizketatuen arabera. Paris aipatu digute, jatorri jakineko jendea pilatzeak bertan izan zituen ondorioak. Gasteiztar askok dituzten aurreiritzi eta irizpide faltsuak nabarmendu dizkigute, ezezagutzan eta ezjakintasunean bizitzeak izan ditzakeen kalte larriak.

“Nire semea etorkizuneko euskalduna da, baina berak eta bere ikaskideek barneratzen dutena da besteak direla euskaldunak, ‘gu aparteko zentroetan hezi gaituzte’, eta hori ez da elkarbizitza, hori ez da Gasteizko gizartearen parte sentitzea”. Eta gizarte polarizatua eta ahula egonkortzea, denon teilatua harrikatzea da.

Borondatea besterik behar ez duten neurri eraginkor eta egingarriak

Legea betetzea eta mahai gainean dau den neurri zehatzak aplikatzea; egoera berbideratzeko hori baino ez dela behar diote manifestuaren sinatzaileek, borondate politikoa dela gakoa. Matrikulazio bulego edo leihatila bakarra –sindikatu eta familien ordezkariak barne hartuko dituen– da proposamen nagusietakoa. Hala, matrikulazioa zentralizatuz gero, ez litzateke ikastetxe bakoitzaren esku egongo, prozesu informalak saihestuko lirateke, eta irizpide ekitatiboak ziurtatzea errazagoa litzateke. Ikasturtea ikasle ratioaren gainetik ez hastea ere eskatu dute: izan

ere, sinatzaileek salatu dute itunpeko ikastetxe batzuetan, gelan 23 haur hartu behar badituzte 25 hartzten dituztela gela “blindatzeko” eta epez kanpo datozen ikasleak eskola publikora bideratu behar izateko. Kuota ekonomikoak eta gisako trabak kentzea ere exijitu dute, diru gutxi duten familiak itunpeko ikastetxeetan matrikulatu ahal izateko. Eta alderantziz, errentaren araberrako zatiketa ezabatzea nahi dute: alegia, errenta baxuko familiek puntuak dituzte publikoan matrikulatzeko eta maila ekonomiko ertain eta altukoak itunpekorat bideratzen dira. 42.000 euroko errentan dago muga, baina errenta familiarraren batez bestekoa 42.000 eurotik gorakoa da Gasteizen: “Modu bat da maila ertaineko familiak eskola publikotik botatzeko, eta ikastetxean maila guztietako familiek egon behar dute, baxu eta ertain”, dio Ruiz de Eginok. Ratioak ikasgelaren araberrakoak izatea –ikasgela batean 25 hurreko ratioa egokia izan daiteke, eta beste batean gehiegizkoa–, baliabide ekonomikoak eta errefortzu irakasleak ere eskatu dituzte, besteak beste.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Gasteizen

Ikastetxeak


| | |
|------------|----|
| Itunpekoak | 19 |
| Publikoak | 29 |

48 ikastetxe horietatik 20 zentrotako hainbat gelatan:


- Jatorri atzerritarra duten ikasleak %30 baino gehiago dira.
- 3 zentrotan %50 baino gehiago.
- **4 zentrotan, %80 baino gehiago.**

20 horietatik bakararra da itunpekoa, gainerakoak publikoak dira.

Ikasleak: 24.510




Ikasle atzerritarrak: 3.014




Ikasle jatorriz atzerritarrak derrigorrezko hezkuntzan:

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan



Nafarroan



Gasteizek 246.032 biztanle ditu, horietatik 21.638 jatorri atzerritarrekoak (%8,79). Jatorri atzerritarreko bizilagun gehien dituen auzoan, auzokideen %18 dira etorkinak.

“Salaketa jarri behar nuela dio Jaurlaritzak, baina konponbide globalagoaren alde ari naiz borrokan”

Salaketa eta eskaera hauen guztien aurrean, arreta Samira Bouazzaouiren kasuan fokalizatzea izan da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren lehen erreakzioa. Semea matrikulatzerakoan diskriminaziorik jasan badu, ikastetxe horien kontrako salaketa jartzeko eskatu diote behin eta berriz, bide ofizialak erabiltzeko. “Ez nuela hedabideetara joan behar errepikatu didate –azaldu digu Bouazzaouik–, salaketa jarri behar nuela. Erantzun diet hau ez dela afera pertsonala, konponbide globalago baten alde ari naizela borrokan, eta ez dut nahi salaketa jarri eta kasu bakarria bailitzan tratatzea, etorkin asko eta etorkin askoren seme-alabak defendatzen ari naizelako. Egoera pairatzen duten etorkin guztiek salaketa jartzen badute, jarriko dut nik ere, baina nik hezkuntza gutxi gorabehera dominatzeak eta jendaurrean egoera salatzeak ausardia izateak ez du esan nahi gainerako guztiek egin dezaketarik. Eta semea biharko egunean ikastetxe normalizatu batera joaten bada ere, jarraituko dut borrokatzen, arazo sozial hau konpondu arte. Gainera, datuak hortxe daude, begi-bistan, benetan XXI. mendean zain zaudete, emakume marokoar batek salaketa noiz jarriko, zerbait egiteko?”

Hezkuntza Sailarekin izandako bilereetatik ondorio positiborik ere atera dute, dena den: Bouazzaouik nabarmendu du arazoren bat zegoela ukatzetik desoreka

» AITOR IDIGORAS, IRAKASLEA:

“Zer egiten du kristau-eskolak? Hartzen duen etorkin kuota ikastetxe bakarrean kontzentratu eta gainerako bere ikastetxeetan ez hartu”

onartzera eta hori saihesteko neurriak hartuko dituztela esatera pasa dela sailburua, eta hori aurrerapausoa da.

Aitor Idigoras ez da fio: “Adabakiak jartzen jarraituko dute, ez dutelako egoera aldatu nahi, hezkuntza sistema dualean sinesten dute, Europa 2020 markoari jarraiki. Gutxienez, mahai ganean kolpe hau emateak jendea mobilizatzen eta gogoetatzen eraman dezala”. Mainer Ruiz de Eginok badu esperantza, eta sailburuarekin bakarrik ez, alderdi guztietako politikariek eta Gasteizko alkatearekin ere biltzen ari dira gurasoak, agintarien konpromisoa lortu aldera.

Herritarren erantzukizuna

Administratortik harago, herritarrei ere badagokie hezkuntza ereduaz hausnartzea. Halere, haurra ikastetxe homogeneoagoetan duten guraso ugari

manifestuarekin bat egiten dutela diote elkarrizketatuek, eta hainbatetan administrazioa bera dela –errentaren moduko neurriekin– eskola publikora beharrean itunpekora bideratzen dituen. Garbi dute elkarrizketatuek: hau ez da gurasoen arteko borroka, patronalek eta gobernuak konpondu beharreko zerbait baizik.


Gurasoentzako mezua ere badute halere: “Nire seme-alabarentzat nahi dudana hezkuntza hau da” planteatzenetik harago, honakoa pentsatu: “Nire seme-alabarentzat, zein hiri mota nahi dut?”. Irakaslearen hitzetan, “agian, hogeit urtetan inork nahi ez duen hiri gatazkatsu batekin egingo du topo zure haurrak. Aparteko gaztelu batean sartu eta han bizitzea nahi baduzu, primeran, baina munduan bizi da”.

Javier Maroto alkate ohiaren diskurtso xenofoboa, horren ostean hiri anitza aldarrikatzeko sortu zen Gora Gasteiz plataforma herritarra... Bolada beroa bizi izan dute Arabako hiriburuan. “Ez jakinek balio gabetu nahi bagaituzte ere, inoiz ez naiz besteak baino gutxiago sentitu –kontatu digu Bouazzaouik–. Pozik nago hiri honetan eta gaur arte ez dut diskriminaziorik sentitu. Are gehiago, ‘diskriminazioa’, ‘ghettoa’, ‘arrazakeria’ bezalako hitzak oso gogorrak egiten zaizkit. Min ematen didana da hemen bizitzeko ahalegin handia egin dudala, hemen ikasi, hemen lan egin eta gizarte honi nire ekarpena egiteko, eta biharko gizona izango dena munduratzeko dudanean, onartzen ez dutela ikusten dut”. ■

“ Ura guztion ondarea da.
Guztiok zaindu eta defendatu beharrekoa ”



Mintza gaitezen **URAZ**



Gure xedeak

1. Ur masen egoera ekologikoa zaintzea eta hobetzea



2. Uholde arriskua kudeatu, herritarren segurtasuna bermatzeko



3. Uraren esparruan eskumenak dituzten gainontzeko administrazioekin, lankidetzaz sustatzea



www.uragentzia.euskadi.net



PERTSONA HELBURU



Arturo Elosegi

“Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroa iparraldeko ibai denak dauzkagu desbideratuta, eta ezin dute ongi funtzionatu”



Marijo Deogracias Horrillo

@desplazatua

ARGAZKIA: IÑIGO AZKONA



Arturo Eloseggi EHUko Ibaien Ekologia taldeko ikertzailea eta ekologia katedraduna da. Urte dezente darama zerbitzu ekosistemikoak ikertzen; alegia, ibai-uren inguruan sortzen den bizitza eta horrek gizarteari dakarkion onura. Azkenaldian, kutsatzaile berrien eraginekin kezkatuta dabilta Ibaien Ekologia taldean: geroz eta gehiago hartzen ditugun botikak hasi dira dagoeneko ibaietan eragiten. Beste ikerketa talde batzuetan arrainen sexu aldaketak ere antzeman dituzte.

Zertan zabiltzate Ibaien Ekologia ikerketa taldean?

Ibaia ekosistematzat hartuta aritzen gara. Interesatzen zaigu ez soilik ura garbia den ala ez, baizik eta bertan den biodibertsitateak (algak, ornogabeak, arrainak) nola jokatzen duen ibai-

ko ekosistemaren funtzionamenduan. Ibaiak hainbat mesede egiten digu gizarteari; horri esaten zaio zerbitzu ekosistemikoa.

Batetik bestera asko aldatzen da?

Ikuspuntu guztiz antropozentrikotik sortu da zerbitzu ekosistemikoa, gure jardueren arabera aldatzen da. Ibaiek ematen digutena gizartearekin aldatzen da. Ur litro batek askoz gehiago balio du jende asko bizi den lekuan; beraz, bai, lurraldetik lurraldera zerbitzuak aldatzen dira. Maiz ez ditugu balio horiek aintzat hartzen. Adibidez, orain urte batzuk Aiako Harriko Natur Parkearen balioaz eztabaidatzen aritu ginen; ordu-ra arte lan gehienek parkean ekoizten den zuraren balioa azpimarratzen zuten, baina ikusi genuen parkeak ehunka aldiz diru gehiago ematen duela uretan zuretan baino. Hori zerbitzu ekosistemikoa da, ur garbia ematea. Garai batean oso argi zuten. Donostiako Udalak orain ehun urte Artikutza erosi zuen ur nahikoa izateko, eta arroa zaintzearen ondorioz gaur munduko ur garbiena han dago, eta Euskal Herriko biodibertsitaterik handiena!

Erreka-urak garbi ikustearekin konformatuko ginateke asko.

Kontua da giza jarduera askok kaltetu egiten dutela ibaien funtzionamendua: baso-ustiapenek, ibilguaren aldaketek, ura kentzeak (edateko, zentral hidroelektrikoetarako...). Bizkaiko, Gipuzkoa-ko eta Nafarroa iparraldeko ibai denak daukagu desbideratuta, beharko luke ten emariaren parte txiki bat daramate eta ezin dute ongi funtzionatu.

Zer egin ibaietara kentzen diogun ur-emaria berreskuratzeko?

Mota askotako egoerak daude. Pentsa, Gipuzkoan 900dik gora presa ditugu! Horietako batzuk Erdi Aroko errotenak edo XIX. mendeko fabrikenak, eta

ez dute erabilpenik. Ibaien oztopo besterik ez dira; espezie askok ezin dute mugitu, errekek zatituta baitaude. Oztopo horietako asko eraitsi egin daitezke, ibai zatiak konektatuz. Bestalde, zentral hidroelektriko asko dugu. Batzuek etekin handia ematen dute; beste batzuek, aldiz, inpaktu handia bai, baina apenas sortzen dute elektrizitaterik. Ikusi beharko litzateke zeinek merezi duen mantentzea eta ibaiari utzi behar dioten emaria berrikusi, inpaktu handiagoa ala txikiagoa izan baitezakete.

Administrazioak barneratu ditu ibaiak berreskuratzeko politikak?

Kontzientziazioa izan badute, baina indar falta sentitzen dutela esango nuke; gizarteak ez du horren erraz ikusten. Adibide bat: hemen inguruan bota den presa handiena Leitzarain ibaiako Inturiako presa izan zen, Andoainen; aspalditik ezertarako balio ez zuena, 12 metroko altuerakoa. Botatzea erabaki zenean inguruko biztanle asko oso kontra jarri ziren. Ohituta zeuden presak sortzen zuen putzura. Beraz, ez da ardura duen administrazioa kontzientziaztea bakarrik, gizarte osoa eraldatu behar da.

Ura zikin dakartenean edo uriolak direnean gogoratzen gara ibaiak.

Europarrok naturaren oso pertzepzio okerra daukagu. Guretzat paisaia polita golf zelai bat da: garbi-garbia, txukun-txukuna. Zenbat aldiz esaten da "basoa zikin" dagoela "sasi asko dituelako", edo kexatu gara ibaietako egur hilaz ibaiari dakarkion onuraz ohartu gabe? Uholdeak gehienetan ez dira gertatzen ibaiak zikin dagoelako, ibaiertzak okupatu ditugulako baizik. Azkenaldian Urumean uholde asko gertatzen dira, Hernani-Astigarraga aldean. Begiratu 1954ko airetik argazkiei eta egungoekin alderatu: berehala ikusiko duzu zergatik ugaritu diren uholdeak. Errekaren eta herriaren artean zegoen distantzia desagertu da.

Urarekiko ziurgabetasun sentipena galdu dugula esan duzu.

Errotak eta burdinolak bai, baina baxerri zaharrak inoiz ez daude erreka ondoan. Herriak ere urrutixeago eta goraxeago eraikitzen ziren. Baina administrazioak uholdeen kontrako babesgarri bat egiten badu, lur sail bat ureztatzea ekiditeko adibidez, pentsatzen dugu babes hori erabateko bermea dela,



eta hortxe eraikitzen hasten gara. Ez ditugu parkeak edo aparkalekuak soilik eraikitzen, baita etxebizitzak eta ospitaleak ere, eta ziurtasun sentsazio faltsu hori oso arriskutsua gerta daiteke.

Zer neurri hartu beharko genuke?

Hainbat lekutan hasi dira ibai ondoko etxeak botatzen. Donostian, Txomin-Enean. Ez zegoen beste erremediorik! Baina jendeak konbikzioa behar du. Hasieran esaten zen errua administrazioarena zela, ez zuelako erreka dragatzen. Baina etxeak marearen mailan zeuden eta erreka dragatuz gero, orduan eta gehiago sartzen zen itsasoa. Uholde arrisku handiko leku asko dago Euskal Herrian, baina leku hauetan zer dagoen da gakoa. Ez da gauza bera Hernaniko errugbi zelaia urperatzea edo MercaBilbao!

Indarrean dago EAEko 2015-2021 Plan Hidrologikoa. Zeintzuk dira 2021era bertarako erronkak?

Europak 2000n onartu zuen zuzentarauak izugarritzko iraultza ekarri zuen. Ordura arte, estatu bakoitzak bere legea zuen. Espainian kezka bakarra ura garbi egotea zen. Zuzentarauak agintzen du ibaiek egoera ekologiko onean egon behar dutela. Iaz amaitu zen Europak ezarritako lehen epea, eta ez da lortu helburua osotasunean, baina ibaien egoera beste begi batzuekin baloratzea lortu da, eta hobetzeko bidean gabiltza.

Zer esan nahi duzu?

Ur garbia daukazunean beste arazo batzuk ageriago geratzen dira, eta plan hidrologikoa horiei erantzuten saiatzen da. Bilbon, Elgoibarren edo Tolosan, ibai izugarri kutsatu baten ondoko hirietan, sumatu egiten da. Garai batean Oria ibaia ez zen ikusten, dena zen aparra gau eta egun; Tolosan etxeek gehiago balio zuten ibaitik ahalik eta urrutien. Ura horren zikin dagoenean ibaiei begiratu ere ez zaie egiten. Aldiz, ura garbitu eta arrainak agertzean, bat-batean gure biziaren zati garrantzitsu bihurtzen dira. Errekaren egoera guztiz lotuta dago gizartearen jardunarekin; asko erakusten du gure ingurumen hezkuntzaz. Deba ibaia egoera lotsagarrian egon zen orain dela bost bat urtera arte, Epeleko araztegia egin arte. Orain arrainak daude! Sekulako jautzia, baina ez nahikoa.

“Araztegiak ez ziren diseinatu farmazia-produktuak arazteko; ibuprofenoaren %80 gernerarekin komunitik behera doa”

“Erabaki dezakegu 12.000 milioi biztanle bizitzea, gaur egungo ghanarrak bezala, edo askoz gutxiago baina estatubatuarrak bezala”

“Uholdeak gehienetan ez dira gertatzen ibaia zikin dagoelako, ibaiertzak okupatu ditugulako baizik”

Araztegiarena da ardura osoa?

Oso konplikatu da araztegien kudeaketa. Ongi diseinatu behar dira, artatuko duten jende kopuruaren arabera dimentsioa izan behar dute. Ekosistemek bezala funtzionatzen dute, neurri batean prozesu biologikoak dira. Baina zer gertatzen da, adibidez, antibiotikoak iristen badira?

Agente kutsakor berriak deitzen diezue.

Bai. Araztegiak diseinatu ziren materia organikoa, koliformeak eta antzeakoak arazteko, baina ez farmazia-produktuak arazteko, eta geroz eta gehiago daude. Ibuprofenoaren %80 gernerarekin komunitik behera joaten da eta botika horien degradazio osagaiak agertu dira, batzuetan jatorritzko konposatuak baino eraginkorragoak. Eragin biologiko oso gogorak izateko pentsatutako botikak dira, eta izugarritzko koktelak ari dira agertzen erreketan.

Nola eragiten dio horrek erreko faunari?

Gure fakultateko beste hainbat ikerlari ari dira gaia aztertzen. Arrainen feminizazioak, sexu gorabeherak... antzeman dituzte, hartzen ditugun eta baserrietan erabiltzen diren botikek eragindakoak, araztegiaren ezin baita kutsadura hori guztia kendu.

Kontsumo ohiturak aldatu behar, beraz. Baina kontrara ez ote gabiltzan... Geroz eta gehiago edaten dugu botilako ura.

Lotsagarria iruditzen zait, eta Euskal Herrian, gainera, izugarritzko muga nabari da: Iparraldean kanilako ura ateratzen dizute jatetxeetan; Hegoaldean, aldiz, botilakoa. Psikologikoa dirudi, Hegoaldekoan espainiartasunaren erakusle: Mediterraneoan ura botilakoa da eta ohiko bihurtu da horrela edatea, baina hemen ez daukagu premia hori! Kanilako ur oso ona daukagu!

Uraren munduko egunaren aurtengo leloa horrekin lotuta dago: “Ura eta garapen jasangarria”.

Ura da gizarte batean baliagarri funtzionatzen duena. Urik ez daukan gizarteak izugarritzko arazoak ditu. Bestalde, garapen jasangarria gero eta erronka zailagoa da, gero eta jende gehiago baikara. Datuek diote aspaldi gaintu genuela jende-maila jasangarria, eta garaia dela zenbat murriztu eta nola bizi behar dugun pentsatzeko: erabaki dezakegu 12.000 milioi biztanle bizitzea, gaur egungo ghanarrak bezala, edo askoz gutxiago, baina egungo estatubatuarrak bezala. Urarena izango da gure etorkizuneko erronkarik handiena. Dagoeneko gerrak ere piztu dira uraren inguruan. ■



Julia Martinez, kinesiologoa:

“ARAZO FISIKOEN %99,9K OSAGAI EMOZIONALAK DITUZTE”

Einsteinek esan zuen: “Gorputz fisiko batean bidaia espiritual egiten ari diren izakiak gara”. Datu fisiko eta matematikoen, materia kuantitatibo eta ekuazioen bitartez iritsi da zientzia ondorio horietara. Pentsatzen dugunaren arabera eraikitzen baitugu gure errealitatea, baina ez dakigu hori kontrolatzeko gai garela, Julia Martinez Yael kinesiologoak azaldu digunez.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Gorputza ikuspuntu atzerakoi batetik ulertzen dugula adierazi digu Martinezek. Giza biologia gorputz fisiko eta material bat garatzera soilik bideratuta dagoela: “Kotxeek ibili ahal izateko bateria duten bezala, gorputzak arlo energetikoa dauka, sistema meridianoa”. Eta horiek kudeatu eta egokitzeko gaitasuna omen daukagu.

Kinesiologoarentzat, “arlo fisikotik harago, energetiko-mental-emozionalaren baitakoa da nire lan egiteko modua”. Normalean, min fisikoa dugunean, medikuarenera joaten gara eta mina baretzeko konponbideren bat ematen digu, baina Martinezek dioenez, horrek ez du arazoa konpontzen: “Nik ere ez dut arazorik konpontzen, gorputzak haien kabuz osatzen baitira. Min hori izateko arrazoia bilatzen dut eta aldatzeko soluzioak eman; izan daiteke elikadura arazoa edo komunikatzekoa, postura batzuen ondorioa, bikotekidearekin arazoak, ohe azpiko erradiazio elektromagnetikoa, beldurrak...”. Finean, medikuarenera joatea, soilik arlo bati erreparatzea da, haren ustez.



ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA

Gaixotasunen kausak bizimoduaren baitakoak direla konturatzean harritu egiten garela ziurtatu du: “Askotan subkontzientetik kontzientera pasatzearekin konpontzen da arazoa. Gakoa, egiten ari garenez jabetzea da. Pentsatzen duguna sentituko dugu eta hala eragingo dio gure gorputzari. Toki fisiko batean islatuta buruko, tripako edo belauneko mina sentituko dugu”. Beldurra eta segurtasun ezak, adibidez, giltzurrunetan, ilean, entzumenean eta hezurretan eragiten duela kontatu digu. Argudio hauekin, gaixotasunen %99,9 arazoi energetiko emozionalatik datorrela azpimarratu du.

Ildo horri jarraituta, Kinesiologia Emozional Praktikoa (KEP) metodoa asmatu du Martinezek. Mugimendua ardatz, gorputzeko atal bati galdetu eta burmuinera iristen da, bertan gordetzen baita jaiotzetik gaur arte dugun informazio guztia: “Nik ez dut ezer asmatzen. Zuen gorputzek kontatzen didate guztia”.

ELKARRIZKETA OSOA INTERNETEN

Julia Martinez Yael kinesiologo ur-nietarrari egindako elkarrizketa osoa Ainhoa Mariezkurrenaren blogean aurki dezakezue: www.argia.eus/blogak/ainhoa-mariezkurrena

Autoa ere ez da martxan jarriko gidaririk ez badauka. “Niretzat, jakitea, da kontzientzia izatea, gure bizitza nola gidatu jakitea, ezer baldintzatu gabe”. Kontzientziaz, jakinduriaz eta gorputzaren gaineko kontrolaz hitz egin digu Martinezek, eskolan ikasten ez ditugun funtsezko elementuez, gorputzaren jabe izateaz. Kulturak, hezkuntzak, gizarteak, genetikak... era jakin batean programatu gaituzte, eta sinesmen batzuen arabera hezi. “Hori aldatzeko gaitasuna dugula konturatzean izango gara benetan libre”. ■

Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako

AÑORGAK HARTUKO DU LEKUKOA



Donostiako Egia auzoa. Urtarrilaren 8tik martxoaren 4 arte auzotarrek norbere kabuz eta eragileek astebetean euskara hutsean aritzeko konpromisoa hartu zuten. 200 pertsona inguruk hartu du parte Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimenean. Kalera atera dira eta euskaraz dakitenei, ez dakitenei, erdizka dabilzaneiei... Denei argi utzi nahi izan diete euskaraz egin nahi dutela. Beldur ziren jendearen erreakzioez, baina uste baino harrera hobea jaso dute. Harritu ere harritu dira, beti euskarari eutsita noraino irits daitezkeen ikusita.



Onintza Iureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimenaren sustatzaileen iritziz, “erabat aberasgarria izan da hilabete eta erdi honetan Egian gertatutakoa. Erratzeko beldurrik gabe esan daiteke ez dela inoiz horrelako esperientziarik martxan jarri Euskal Herrian”. Amaiera ofiziala emateko jaia egin zuten martxoaren 12an. Ekimena bukatu da, baina auzotar askok konpromiso txikiak hartu dituzte eta hemendik aurrera betetzen saiatuko dira.

Egiak Añorga auzoari pasa dio lekuakoa. 2.000 biztanle inguru ditu eta Donostiako euskaldunenetakoa da. Laster herri batzarra egitekoak dira eta dagoneko kuadrillak zirikatzen hasita daude.

Donostiako Bagera euskara elkarteak ekimena auzo gehiagotara zabaltzea nahiko luke. Elkarrekin ez du auzoetan ekimena antolatzeko ardura hartuko, baina bi egiteko baditu: batetik, Egiako esperientzia kontuan hartuta, hurrengoie antolaketarako balioko dien gida praktikoa idatziko du, eta bestetik, auzoek ekimena abiatu dezaten sustapena egingo dute.

Hilabete eta erdiz parte hartutako egiatarrak argazkia ateratzeko bildu ziren. Egun osoko jaia egin zuten martxoaren 12an.



Martxoaren 12ak askorako eman zuen. Mahaiaren bueltan egitarrek astebeteko esperentziaz gogoeta egiteko aukera izan zuten. Berriketa lasaiagorako eta musikarako tartea ere izan ziren.

EUSKARAZ ARITZEAK ERAGINDAKO BIZIPENAK

» Mahaiaren bueltan jasoak

» IDURRE BEOBIDE, AITOR IKASTOLAKO LATXAGA GURASO ELKARTEA:

“Esan izan dit norbaitek, ‘uste duzu ez dizudala ulertzen baina moldatzen naiz’, eta euskaraz egiteko eskatzen didate. ‘Idu euskaraz!’, baina barneratuta daukat errespetu faltarena eta kosta egiten zait euskaraz egitea”

» NEREA TXAPARTEGI, AITOR IKASTOLAKO IRAKASLEA:

“Niri erdaraz egin’ esaten dutenak dira nire hurrengo erronka. Euskaraz zenbateraino moldatzen diren jakin nahiko nuke”. Ikastolan diote: ‘Guk euskaraz egiten dugu dena!’. Guraso erdi-euskaldunekin ere bai? Irakasleok guraso horiei telefonoz deitzen diegunean saiatzen al gara euskaraz, ala zuzenean gaztelaniaz egiten diegu?”

» AMAIA BERISTAIN, AUZOTARRA:

“Zaila dela iruditu zait. Ematen dizkiguten erantzunak... eta batik bat begiradak. Dena dela, beraiek aldatu behar dute”

» LUTXO EGIA, HILABETEZ GAZTELANIA ERABILI GABE BIZI IZAN ZEN BILBON:

“Konturatu naiz niri gertatu zitzaizkidan gauza batzuk gertatu zaizkizuela: hizkuntza ohiturak aldatu ahala talkak sortzen ziren, ez derrigorrez negatiboak, eta talka horiek kudeatzen ikasi dugu. Harridura ere izan da: gure solaskideak harritu egiten ziren lehendabiziko hitza ez ezik bigarrena eta hirugarrena ere euskaraz egiten genuenean, eta gu ere harritu gara ikustean noraino iritsi garen, erdarara jotzen dugula eta ez dugula zertan erabili askotan”



Herritarren ekarpen idatziak

- » “Euskaraz egin izan dugun ezagunekin hasi euskaraz. Ezagutu haren jakite edo ulermen maila eta lortu elkarrizketa elebiduna izatea. Ezagunak ez direnekin hasi lehenik euskaraz eta saiatu euskaraz hitz egiten jarraitzen, ezagutza maila izan edo ez. Ezin bada jarraitu, erabaki zer egin, garrantziaren arabera edo. Ahalegina serio hartu, baina jolas edo abentura bat izango balitz bezala”
- » “Nerabeekin asko dago egiteko, euskaldunenak direnak ere, 14-15 urterekin, harremanak zabaldu eta erdalduntzen doaz”
- » “Jarrera pertsonal hau auzoko beste hainbatekin konpartituko dudala jakiteak egiten du kitzikagarri ekimen hau. Plazara atera gara euskara ahoan, eta ez dugu euskararen alde egiten den ohiko festa baten eskeman gelditu nahi. Euskaraz ariko gara, eta ximple-ximple”
- » “Asteko ariketa oso ona izan da gure ‘elebitasunaz’ hausnartzeko. Hemendik aurrera lehenengo hitza beti euskaraz egiteko konpromisoa hartu dut nire buruarekin. Komertzioetan euskaraz egitea izan da errazagoa, nire kuadrillarekin baino”
- » “Ohartu naiz pentsatzen nuena baino gehiagotan erabiltzen dudala gaztelania, beraz aurrerantzean ‘txip’ aldaketa egin behar dut. Bestalde, ohartu naiz euskara hutsez komunikatu naitekeela”
- » “Gaur euskaraz ondo ulertu baina hitz egiteko erraztasunik ez duen familiako kide batekin pasa dut egun erdia eta azkenerako egoera ezeroso samarra suertatu zait. Normalean gaztelaniaz hitz egiten dugu, eta gaur biok euskaraz egin dugu hein handi batean, baina berak zailtasunak zituen”

Bururik gabe



Jakoba Errekondo
mandio@zerain.eus

Bururik gabeko azak, *Brassica oleracea* var. *acephala* edo var. *viridis*, aza galegoa eta galego-aza esaten diogu hemen. Galizian aza da; aza arruntena, alegia. Zopa berdea egiteko erabiltzen da, eta aintza handian dute. Euskal Herritik abiatu eta Atlantikoaren ertzari segituz gero, Portugalgo hegoalderainoko ia baratze guztietan ikusiko duzu: hanka luze, mehe baten buruan hosto luze zabal urdinxkak, harro-harro, sekula bururik osatu gabe, kobatu gabe. Horixe adierazten du *acephala* hitzak, bururik gabea. Burua ezean zer jan azari? Aza jende guztiari bezala, hostoak. Burua eginez bildu gabe, baina hostoak baditu. Zuztarraren muturrean banana-banaka harro-harro. Hostoz hosto mozten eta biltzen dira, azpiko aldekoak beti. Eta, azpia soildu ahala, zangoa luza eta luza. Honelaxe jasotzen du hiztegiak: "Aza-zango luzeak ere goiti ari dira, os-toak ja harat hunat dilindan paratuak".

Lurra eta itsasoa bereizten ez direnari segika, Ozeano Atlantikoan hegoaldera, makina bat aza aldaera topatuko dugu: zurtoin luze eta zurtoin motz, zimel eta izurto, gorri eta urdin... Kultura bakoitzak bere kuttunak ditu: asturiarrak, galziarrak, Portugalgo berdeak eta



Saltzailea Lisboako Erriberako Azoka ikusgarrian.

JAKOBA ERREKONDO

gorriak... Nire aburuz, azetan eskasena gurea da. Zaharrei eustea zailagoa da berriak, "nobedadeak", eskuera jartzen direnean. Eta gure herria bide-buru edo gurutzagune geografiko batean bizi izan da. Eta kanpotik gauza ugari erraz iritsi eta geratu dira.

Lisboan naizela gozatu ditut azak eta arbiak (*Brassica napus*). Erriberako Azoka ikusgarrian, ez bere izena, ez nongoa zen *-perto Lisboa* zioen, urrutira gabekoa- esan izan nahi ez zidan atso batek erakutsi zidan arbiekiko duten maitasuna. Egia esan, ederrak saltzen

zitzen. Aldameneko beste batek garak eskaintzen zituen: arbi-garak eta aza-garak. Erosleek azken horiek hartzen zituzten, finagoak omen.

Duela gutxi, irratiko entzule batek galdetu dit ea arbiak jaten diren. Garai batean hemen ere erruz jaten baziren ere, gaur egun gastronomiaren ipularrera baztertuak ditugu. Baina ez ahaztuak. Galdetu bestela Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak bat egiten duten inguru horretan, ea zenbatean diren arbi-garak, arbi-listoak edo arbi-litsak. Angula edo ezkailu prezioan; bururik gabe. ■

Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Gure enpresa-lana aitortuz eta erkidegoaren aberastasuna areagotzeko ahalegina eskertuz, Gipuzkoako Bazkundeak **2016 enpresa nazioartekotzeari saria** eman digu.

Eskerrik asko zuen konfiantzagatik.

www.goizper.com Tel. 943 786 000




GOIZPER
ZURE KIDEA POTENTZI
TRANSMISIKO OSAGAIAZ



Goizper
Ihinzadura
ZURE KIDE ADITUA,
IHINZADURA ZEHATZA.

MATABI iK
OSATU iK



Goizper
Bioteknologia
NATURAN INSPIRATUA

BIOTEKNOLOGIA
osabe



Pili Otaegi "Larraulgo usadioak sendabelarrekin" liburua aurkezten.

Gure aitona-amonon jakinduriari balioa ematen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Nork ez du gogoan txikitari tripako mina zuenean amonak prestatzen zion mantzanila? Edota neguan katarroa harri-patzean amak egindako berbena kataplasma? Askok izango ditugu burutan antzeko pasarteak, baina ziurrenik gutxitan jarri izan gara pentsatzen automatikoki edo ohituraz ateratzen zaizkigun erremedio guzti horiek mendeetan, belaunaldiz belaunaldi iraun eta guga-naino iritsi diren jakintzak direla.

Jakinduria guzti hori biltzeko asmo-tan hasi ziren Pili Otaegi eta Larraulgo Dina7 Kultur Elkarteke beste kide bat 2011n herriko aitona-amonak elkarriketatzeko. Orain, *Larraulgo usadioak sendabelarrekin* liburuan bildu ditu Otaegik ikasitako horiek guztiak: "Hasieran baserriarrek zer esan handirik ez zutela zioten, baina behin hizketan hasita bi ordutik gora egoten ginen ia beti", azaldu digu.

Pertsonentzako erremedioez gain abereentzako sendabelarrak ere badatoz liburuan, baita landareen argazkiak ere. Gainera, aitona-amonak beren jakinduria partekatu bezala, Otaegik berak ukenduak, kremak, hortzetako pastak, olioak edota xaboiak egiteko errezetak konpartitu ditu irakurleekin.

Transmisioan etena

Liburuaren prozesuan ikusitakoaren arabera, sendabelarrak erabiltzeko ohitura asko galdu dela uste du Otaegik. Medikuntza tradizionalaren eraginez eta albaitariak baserrietan sartu zirenetik, pixkanaka beheraka egin du betidaniko jakintza horren transmisioak. Etxe batzuk oraindik beren erremedio kuttunen bat gordetzen dute, baina ez da egoera orokorra. "Osina, adibidez, oso erabilia zen lehen baserri gutxitan, adin batetik aurrera maiz hartzeko ohitura izaten zen. Gaur egun, horren ordez, *simtrona* erabiltzen da, dauzkan kalte ondorio guzietan".

Natura irakurtzen ikasteko beharra

Lurrarekin harremana berreskuratzea eta inguruan duguna ezagutzea beharrezko zaigula uste du Otaegik: "Hain da azkarra natura, non gure inguruan sortzen dizkigun behar ditugun belarrak. Landaredia gurekin harreman zuzenean dago, eta gaitasuna du guk behar dugunera egokitzeko", dio. Harreman horretan egungoa baino abilagoa izan zen gure aitona-amonon belaunaldia: haien jakinduriaren aitortzea egitea ere baden liburuaren helburuetako bat. Baina "zenbat zekiten lehengoek eta ze gutxi dakigun orain..." horretan gelditu ordez, jakintza zahar hori guztia berreskuratzeke tresnak emanez. ■

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

[@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpidetzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Martxoak 22: Goiatz

Dendale ostatuan, 19:00etan.

Apirilak 8: Ezkio-Itsaso

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 13: Barakaldo

San Bizenteko kultur etxean, 19:00etan.

Apirilak 14: Murgia

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 16: Ubera (Bergara)

11:15ean, lekua zehazteke.

Apirilak 20: Gabiria

Kultur Etxean, 18:00etan.

Udalak antolatuta.

Apirilak 23: Hendaia

Udal aretoan, 18:00etan.

Ondoren otordua Balea elkartearen.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

📞 943 371 545

OSTEGUN SANTUA, ASTEAZKENEZ



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**
@irazustabarrena

Jerusalem, 33ko apirilaren 3a. Sir Colin J. Humphreys Cambridgeko Unibertsitateko fisikako katedradunaren arabera, Jesus Nazaretekoa ostiral goiz hartan gurutziltzatu zuten. Graeme Waddington Oxfordeko astrofisikoaren laguntzaz lortu zuen data zehatza, 1980ko hamarkadan abiatutako ikerlanaren ondorioz. Adituek bestelako data batzuk ere iradoki izan dituzte, 30. urteko apirilaren 7a, esaterako, Herodes Handia K.a. 4. urtean hil zela eta, beraz, Jesukristo "bere" aroa hasi baino 4-6 urte lehenago jaino zela argudiatuz.

Baina Humphreysen asmo nagusia ez zen izan urtea zehaztea, asteeko eguna baizik. *The Mystery of the Last Supper* (2011) lanean Jesusen bizitzako azken egunak berraztertu zituen eta, ezarritako data zehatzean oinarrituta, ondorio logiko hau atera zuen: ez da posible Bibliak jasotzen dituen gertakizun guztiak Ostegun Santuko afalondotik hasi eta ostiral goiza bitarteko ordu eskaseta jazozea. Gogora dezagun Azken Afariaren ostein, Jesus atxilotu eta galdekatu zutela, Pontzio Pilatosek eta Herodesek bi epaiketa bereizi egin zizkietela eta epaia gauzatu baino lehen Kalbario mendiko bidea egin behar izan zuela. Gainera, gertakizun horiek Jerusalemgo hainbat tokitan gertatu ziren, eta horrek



Azken Afaria irudikatzen duen koadroa. Colin Humphreys Cambridgeko Unibertsitateko katedradunaren arabera, ostegun santuko afari ospetsua asteazkenean egin zuten.

gertakizunen sekuentzia areago estutzen du. Ondorioz, eta beti ere Cambridgeko fisikariaren arabera, Azken Afaria apirilaren 1eko iluntzean egin zuten. Asteazkenean, beraz.

Ebanjelioak ere ez datoz bat otordu ezagunaren datan. Mateo, Markos eta Lukasek diote Pazkoko afaria izan zela, eta Joanen ebanjelioan, aldiz, Pazko juduaren aurretik izan zela esaten da. Humphreysek ez du hor kontraesanik ikusten; haren iritziz, egutegi desberdinen erabileran dago gakoa. Lehen hiru-

rek ez dute esaten ostegunez izan zela, eta Moisesen garaiko egutegi zaharra go bati egiten omen diote erreferentzia Pazkoa aipatzean. Joanek, aldiz, indarrean zen ilargi egutegia erabili omen zuten.

Beraz, Colin Humphreys zuzen bada go, egun bat lehenago hartu beharko genituzke oporrak eta Azken Afariari Azkenaurreko Afaria esan beharko genioke, baldin eta biharamun gorabeheratsu hartan protagonistaren batek afaltzeko astia izan bazuen. ■



George Washingtonen askotariko hortzordeak

1789ko apirilaren 30ean AEBetako presidente izendatu zutenean, George Washingtoni hortz bakarra, aurreko hagineta bat, geratzen zitzaion. Horregatik, ordeko hortzak erabiltzen zituen. Haiek aztertuta, ikus daiteke garai hartan galdutako hortzak ordezkatzeko askotariko materialak erabiltzen zituztela, baliabideak zituztenek behintzat. Dolarre-

ko billeteetan irribarrerik egiten ez duen presidentearen hortzerian hipopotamo eta elefante bolia, urrezko haria, beruna eta zaldi, behi eta giza hortzak aurkitu dituzte. Garai hartan ez zuten erreparorik hildakoen hortzak berreraultzeko, eta gudu-zelaiak iturri oparoa izan ohi ziren. Waterloo ordeko hortz saltzaileen pagotxa izan omen zen. ■



DANI BLANCO

ARGIAren irakurleek bista arazoak al dituzte?



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

ARGIAko harpidedunek okerrago ikusten dute ez-harpidedunek baino. Ez, ez da ARGIAk egindako azterketa baten emaitza; nire teoria baizik. Edo agian bigarren teoria zehatzago batera jota, Net Hurbilen irakurlea jende edadetua dela ere ondoriozta genezake. Esango didazu, bestela nola uler daitekeen optika batek ia berrogeita hamar urtez astekarian publizitatea jartzea! Baina tira, arrazoia edozein izanik ere, Zinkunegi optikak hor merkatua ikusi du (optika-koak merkatua ikustea... ados, txistek ere onartzen dira), seguru!

Zinkunegi familiako hirugarren generazioa hasia da optikan lanean, eta hark hartuko du aitona irekitako negozioaren testigua. Eta denda ireki zutela adina urte izango dira hortxe-hortxe gurean iragarkia jartzen hasi zirela. 1967-68an hasi eta gaur oraindik ere aldizkarian tarte bat izaten du beti. Donostiako familia euskaltzalea garai hartarako jabetzen zen euskal prentsari eman beharreko babesaren garrantziaz, eta garbi zuten orduko *Diario Vasco* eta *La Voz de*

España hedabideetan ez zuela publizitaterik jarri nahi. *Zeruko Argiara*, beraz. Euskaldun giroan eroso, bezeroak ere inguru horretatik erakarri nahirik-edo.

Onartu digute, baina, euskal hedabideei babesa ematearren soilik ez dutela jartzen iragarkia; gustuko dutela ARGIAk egiten duen kazetaritza, lurraldetasunari zaion errespetua, eta ez dela kasualitatea laster aldizkariaren mendeurrena izatea. Irakurlerik badagoen seinale. Beste zenbait hedabideetan ere jarri izan dute zinkunegitarrek antzizioa: *Euskaldunon Egunkarian* eta Herri Irratian, esaterako.

Eta egia esatea nahi baduzu, irakurle, irriarietak deskolokatu nau pixka bat, nire hasierako teoria goitik behera aldatzen baitu. ARGIAren irakurlea bakarrik ez, bista arazoak dituena orokorrean euskal prentsaren irakurlea izatea kalkuluetan sar zitekeen; baina irriti entzulea? Non dago hor bistaren papera?

Bromak alde batera utzita, eskerrik asko Zinkunegi familia, horrenbeste urte ARGIAren parte izateagatik. ■

Gogorra izango da, baina eutsi!

ARGIAk astebetetz atsedean hartuko du. Apirilaren 3ko alerik ez zaizu buzoian agertuko. Ziur irakurri gabeko artikulu interesgarriak pilatu zaizula mahaian. Aukera ederra, denbora horiei eskaintzeko! Apirilaren 10eko zenbakiarekin itzuliko gara, indarberrituta.



Ondarru eta Herbeheretako lagunak, ARGIAra eginiko bisitan

ARGIAko harpideduna da Ondarruko Zubi Zahar ikastola. Herbehereetako ikasleekin bizi izan dituzten egunetan, besteak beste ARGIAra egin dute txangoa, komunikabide bateko lana barrutik ezagutzeko. Ingelesez egin zien bisita gidatua ARGIAren ingelesezko edizioarekin tematuta dabilen *journalistak*.

Sarean arrantzatua



Iban Urizar, Amorante:

“EZ DIOT INOLAKO BELDURRIK KANTU BAT EGITERA ITSU-ITSUAN ABIATZEARI”

“Hemen nago”. Besoa altxata dauka Iban Urizarrek. Martxoko asteazken busti bat da Elgoibarko autobus geltokian, ilundu du, eta haren aterkipean egin dugu tabernarainoko bidea. “Bi kaña, mesedez”. Egun astuna eduki du, ez da aise ohituko promozio lanek eskatzen duten esfortzura. Bizitza osoa musika zirkuitu minoritarioetan igaro duenarentzat nekagarriak dira egun hemen proiektu pertsonal bati ekiteko dauden joko arauak, derrigortzen zaituztenak etengabe zeure burua plazaratzera, etengabe besoa altxatzera: “Hemen nago”.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Egia da Amoranterekin alderantzizko ibilbidea egin duela: oraintsu argitaratu du lehen lana –bost kantuz osatutako soinu postalak–, nahiz eta pare bat urte badiren zuzenekoetan hasi zela. Harre rarekin “flipatuta” dagoen arren, tentuz begiratzen dio uneari. “*Hype* kulturari bizi gara. Edonoiz bihur zaitezke artista efimero. Amorante elikatzeari uzten badiot, ziur asko inor ez da nitaz gogoratu-ko bi hilabete barru”. Barruak eskatzen diona egiten ari da, olatua aprobetxatuz proiektua baldintza duinetan erakusteko, areto txukunetan joz, gustuko kartelkideekin. “Mugitu izan naizen orbitak laguntzen dit oihartzun hau edukitzen. Ibilbiderik gabe ez nintzateke nagoen tokian egongo”.

Curriculum konpletoa dauka: garga- gardo basoa hustu dugu haren ibilbide osoa errebasatzerako. Klase guztie- tako plazak zapaldu ditu Urizarrek:

ezkontzetako duo bat zeukan aitak, eta tokatu izan zaio han ordezkape- nak egitea; Elgoibarko Zokoan talde- ko tronpetista izan zen; Kataluniako Huapachà Combo berbena taldearekin plazaz plaza ibili zen Bartzelonan et- nomusikologiako masterra egin bitar- tean; Bizarra bikotean inprobisazio askean aritu zen Mikel Etxegararekin batera; jo zuen Café Teatron eta Men- gele Quarteten; Rafa Ruedaren taldeko partaide izan zen; Joseba Tapiarekin aritu zen, eta izan da, berriki, Jose- ba Irazoki eta Lagunak-eko parte ere. Beti bigarren lerroan. Herriko musika bandako kide da duela ia 30 urtetatik. “Bandan aritzeak asko hezten du bat. Zure eginbeharra denean 50 lagune- ko engranaje hartz bat gehiago iza- tea, ego guztiak alde egiten dizu”. An- drakan-en egin zuen aurreneko talde buru lana, eta ondoren etorri zen Amo-

rante: ahotsarekin zituen konplexuak gainditzeko terapia modura hasitakoa, bere mundu pertsonalaren erakus- leiho bihurtu duapurka.

Ikonoen eragina

Tabernatik irten gara ogitarteko bat urdaileratzeko toki baten bila. Pauso azkarrez gurutzatu dugu herriko pla- za, orain astebate Arnaldo Otegiri ongi etorria egin zioten toki berbera. Hutsik dago: ez tranpaldorik, ez ikurrinarik, ez txalapartarik. Ez baflerik eta ez mu- sikaririk. Aipatu diot badela egunotan taberna zuloetan dezente aipatzen den gai bat: ekitaldi politiko orotarikoetan musikariek –artistek, oro har– betetzen duten funtzioa. Urizarri ez omen zaio sekula gustatu musika aldarrikapene- rako erabiltzea, nahiz eta errespetatzen duen hori egiten duena. Bazter haue- tan ez ote dugu oraindik artista kon-



prometituaren eskema oso sinplista, galdetu diot, mikrofonoari aise heltzen diona belarrizuloetatik leun eta gozo sartzen diren lau aldarrikapen botatzeko, horrek giro jakin batean estatus bat bermatuko diola jakitun, gainera. Baiezkoan dago. “Herri honetan horrelako eskemekin hartu dira erabaki asko. Egunerokoan euskaraz funtzionatzen ez dutenek erabaki izan dute apropos euskarazko talde bat sortzea, jakinda horrek lagunduko ziela norbait izaten musika panoraman. Hori, artistikoki, iruzurra da”.

Epelera egin dugu berriz ere, euskal musika panorama hizpide dugun bitartean. Bigarren taberna batean sartu, eta ogitartekoen kartari erreparatu dio Urizarrek. Reggaeton erritmoak entzuten dira bozgorailuetatik –duela zazpi hilabete zeruak eta lurrak astindu ziren, mezu sexisten aurkako neurri gi-

“Egunerokoan euskaraz funtzionatzen ez dutenek erabaki izan dute apropos euskarazko talde bat sortzea, jakinda horrek lagunduko ziela norbait izaten musika panoraman. Hori, artistikoki, iruzurra da”

sara udalak musika estilo hori herriko tabernetatik kentzeko kanpaina abiatu zuela zabaldu zenean-. “Hirugarrena izugarri ona dago”. Garbantzu xehatuak, berenjena eta tomatearekin. “Belar-jalea?”. Ezetz, baina ia-ia. Urdaiazpikoak zorutzen omen du. Urdaiazpiko onak, noski. Leiho alboko mahaian eseri gara, eta grabagailua piztu dut berriro. “Teoria bat daukat: herri honetan ikono batzuk sortu dira, eta markatzen dute garai bakoitzean zerk *molatzen* duen eta zerk ez. Gertatzen da, ordea, badirela musikari batzuk ikono horietatik kanpo kokatzen direnak eta ez daukatena halako presentzia mediatikorik”. Eskema horretan bere burua non kokatzen duen galdetu diot. Irribarrez erantzun du: “Agian *cool*en aldera erori naiz, baina lasai nago, badakidalak egiten dudana zintzotasunez egiten dudala”.



Errorearen estetika

Bere input guztiak hartu, batidora batekin nahastu eta emaitza entzuleei bere horretan eskaintzen die Amorantek, Urizarren ustez. “Amoranteri jaten ematen diot nire motxilako gauza guztiekin. Saski-naski bat egiteko arriskua neukan, elkarren artean zerikusirik ez zuten kantu sorta osa nezakeen. Zorionez, uste dut denek badutela lotura. Lotura hori da nire ekarpena”. Mahai gaineko mugikorrak dar-dar egin dio. Mezu berri bat. Euskal idazle ezagun batek idatzi dio, galdetuz ea non eros dezakeen bere diskoa, Elkar megadendetan ez duela aurkitu eta. Agortuta dagoela, dio barez Urizarrek. 82 ale ateratu eta ez dauka gehiago argitaratzeko asmorik. “Nahi duenak sarean dauka entzungai”.

Izatez, argitaratu duena ez da disko bat, soinu postalak baizik, Alaitz Alberdik eta Joseba Agirrezabalagak marraztuak. Postal bakoitzak kode bat dauka, kantua *Bandcamp* gunetik deskargatzeko aukera ematen duena. Sorta guztia Josune Galartzak barazki paperez egindako sobre batean gordeta dago, Rafa Rodrigok origamiz sortua. Koherentziagatik hautatu du bide hori, urtetan pila-tutako CDak logelan dauzkalako hautsa hartzen –“diskoa, kontzeptu gisara, hilda dago niretzat”-. Nahiz eta disko bat egiten duen musikariak aitortza merezi duen, ez dator bat lege orokorrez norbere lana modu horretan plazaratu beharrekin. Urizarrek formatu digitalean entzun ohi du musika. Askotan, entzungailuekin, norabait pasieran joan behar duenean. “Ikasleei esaten diet kontuz ibiltzeko entzungailuekin, baina neroni naiz adibiderik txarrena”.

“Herri honetan ikono batzuk sortu dira, eta markatzen dute garai bakoitzean zerk *molatzen* duen eta zerk ez”

“Diskoa, kontzeptu gisara, hilda dago niretzat”

“Badago asko gustatzen zaidan kontzeptu bat: errorearen estetika. 90eko hamarkada amaierako elektronika talde batzuk hasi ziren errore digitalak aprobeztatzen sormenerako. Saiatzen naiz bide hori hartzen entseguetan eta kontzertuetan”

Aipatu diot kuriozosa dela nola inprobisazio askean ibili ondoren bat-batean jauzi egin duen herri musikako kodeetara. Iruditzen zaio, ordea, mundu esperimental horretatik asko duela Amorantek, kantuak sortzeko moduan, adibidez. “Ez diot inolako beldurrik kantu bat egiterakoan itsu-itsuan abiatzeari. Gai naiz horretarako, urte askoan landu izan dudalako. Badago asko gustatzen zaidan kontzeptu bat: errorearen estetika. 90eko hamarkada amaierako elektronika talde batzuk hasi ziren errore digitalak aprobeztatzen sormenerako. Saiatzen naiz bide hori hartzen entseguetan eta kontzertuetan, hanka sartzean gelditu beharrean, akatsetik tiraka hasi eta bestela iritsiko ez nintzatekeen toki batera iristen. Hori da interesgarriena: nora iritsi naizen baino helmugara iristeko ze bide egin dudan. Arriskatzea gustatzen zait, eta uste dut zintzotasuna ematen diola horrek Amoranteri”. Entzun behar izaten du, ea ze apustu klase den berea, ea flamenkoa euskaraz egiten ote duen, eta halakoetan irmo erantzuten du ezetz, Amorante ez dela iruzurra, ez duela ezer euskaraz kopia-tuko gero horrek arrakasta ekarriko diolakoan, ez direla onak erabaki premeditatuak proposamen artistikoetan.

Komuneko bizipenak

Afaria amaitu eta kalera irten gara. Tanta lodi batzuk erortzen hasi bezain pronto ohartu da aterkia tabernan ahaztu duela. Buelta ostera. Mugitu beharrean gara, berandutzen ari du eta entsegu lokala bisitatzea falta zai-gu oraindik. Bi egunean behin joaten



da hara, afalostean, haurrak lotaratu eta gero. Inori enbarazu egin gabe lasai jotzeko moduko tokia topatu du. Cortaberria pentsuak jartzen duen lokalaren alboan dago lehen suhiltzaileen egoitza zena eta egun Elgoibarko Udal Bandarena dena. Atetik sartuta ikusten dira bandako perkusio instrumentuak eta eserleku mordo bat, bakoitzak parean kartel bat duela: “saxofoia”, “elikoia”, “tronpeta”. Aretoa zeharkatuta iristen da komunera, Amorantek entsetzen duen tokira. Han zabaltzen du alfonbra bi egunetik behin, han errepikatzen du beti desberdin ateratzen zaion errituala, pixa tokia eta dutxa izkinetik begira dituela, kantu eta kantu artean pareko konketatik ur tragoska bat edanez.

Aire beroa piztu du. Atera ditu banan-bana alfonbra gainera looperra, autotunea, tronpeta, armoniuma, gitarra, ukelelea, kalinba, atrila –hitzak gogoratzea kostatzen omen zaio– eta bestelako tresna batzuk. Albo batera eseri naiz. Sei kantu jotzeko astia eman dio: *Oiloarena* hasteko, ukelelea eskuan, ohi baino pausatuago; *Zugana Manuela* bigarren, “harri astun bat ez bilakatzeko” kantua remix berri bat eginez; *Bruegel* deitu dion pieza berri bat gero –Pieter Bruegel pintoarearen omenez– Jose Mari Ondartza osabaren hitzekin ondua; *Kanibalaren Kanta* bertsionatu du segidan, tribu afrikar baten erritmo kolpean, “Tapia jainkoa da” dioelarik; *Otoi* jo du gero, *Txori Erresiñula* Zuberoako kantu tradizionalarekin nahasita; azkena, berriz, diskoko ederrenetariko bat, *Dogma*, eskuko irratik txiki baten zarata lagun.

Musika tresnak kaxetan sartzera doala irratiairena aipatu diot, nola aldi bakoitzean kantu desberdin bat jotzera derrigortzen duen tresna horrek. Orduan egin du: lurrean makurtu, irratikate bat sintonizatu, eta pedalekin jolasteari ekin dio. Irratiko esatariaren esaldi bat geratu da looperrean biraka, txit poetikoa, inondik ere: “ametsak hurbilago sentituz”. Bada aski abiapuntu, han abiatu baita “itsu-itsuan”, nora doan jakin gabe, inprobisazio betean. Ahots kapak sartu ditu aurrena, oinarri armoniko sendo bat osatuz, eta haren gainean momentuan bururatutako hitzak bota ditu, bizpahiru minutu iraun duen ariketa arriskatuan. Izan zitekeen besterik gabekoa, asmo hutsean gelditutako saiakera. Edo har nezake pixka bat esajeratzeko lizentzia, kronika goitik amaitzeko. Baina zinez diot dotore askoa gelditu zaiola.

Fini entsegua. Urizar trasteak jasotzen ari delarik, bainugelako alfonbra gaineko kable, mikrofono, eta bestelako tramankuluek osatzen duten kaosari begira, ausazko burutazioak datozkit errenkadan, esaterako, musika kritikan ez ote den sonoritatean pisu gehiegi jartzen, eta kantu bat epaitzerakoan ez ote diren funtsezkoagoak beste aldagai batzuk, abestia ze testuingurutan sortu den, musikariak ze bide egin duen horra iristeko, bilaketa hori zintzoa izan ote den... Finean, instantea dela kantua, baina ganorazko kritika batek instantearen atzean dagoena azalerratu behar duela. Deus berririk ez ozonopean, baina martxoko asteazken busti baterako, zer nahi duzue ba. ■

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



euskara, zure frekuentzian

► Gozatu euskaraz liburutegietan!

• ABETXUKU

Galaxietako liburutegia
Ciencia Divertida (lantegia)
Apirilak 12, 18:00; 5-7 urte

• ALDABE

Orain hilak ditugu
Ikarmele Jaio (erezitaldi musikatua)
Apirilak 19, 19:30; gazte eta helduak

• ARANA

Entzun eta sentitu
Pello Añorga (ipuin kontalaria)
Apirilak 19, 18:00; 5-8 urte

• ARIZNABARRA

Magia
Arroxbola (lantegia)
Apirilak 16, 19:00; 7-12 urte

• HEGOALDE

Amodiozko ipuinak
Emakume Eskuetoak (ipuin kontalaria)
Apirilak 5, 18:00; gazte eta helduak

• LAKUA

Ipuin magikoak
Bihar taldea (txotxongiloak)
Apirilak 19, 18:00; 3-7 urte

• PILAR

Zaku bete lelokeria!
Izakubete (ipuin kontalaria)
Apirilak 20, 18:00; 4-8 urte

► Oihaneder euskararen etxea

Gasteizko ahotsak

Aurkezpena
Apirilak 6, 19:00

Kapulana bat zintzilik

Erakusketa
Apirilak 7-12; 19:00

Dona, dona, katona

Euskal jolas tradizionalak familian
Lantegiak

► anHitzak!

Gasteizko Hizkuntza aniztasunaren topaketa

Apirilak 16, 11:00-14:00

Oihaneder Euskararen Etxea

World coffe, kultur ekitaldiak

Gasteizko hizkuntza aniztasuna

ikusarazi eta balioan jartzeko

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

FURIA:

“EZ DAGO BEREZKO ESTILO MATXISTARIK, HALAKO ERABILERAK BAIZIK”

Madrilgo musika jaialdi feminista batetik bueltan harrapatu dugu Furia rap abeslaria. Estandarretatik ihes, ikusi nahi ez dugun emakumeen lur azpiko eszena indartsuan dabil buru-belarri, haien lana eta borroka ahalduntzen eta ezagutzera ematen. *Free Otegi free them all* kantuaren bideoklipetan abestu du eta azken urteotan ekimen askotan dabil. *No hay clemencia* diskoak, abortu eskubidearen aurkako legez idatzitako *Aborto retrospectivo* kantuak eta herriz herri ematen dituen tailerrek begi eta kontzientzia asko zabaldu dituzte.



Iker Barandiaran

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Cascantekoa izateak markatu zaitu?

Norberak jatorria duen lekuak beti eragiten du. Zaila da herri txiki batean neska izatea, genero estereotipoak are eta estuagoak direlako eta asko behatzen zaituztelako.

Noiz eta nola deskubritu zenuen rapa? Zure bizitza errotik aldatu zuen?

15-16 urterekin, ez dakit nola heldu zen nigana. Ez ninduen bat-batean liluratu, baina oso erreminta aproposa iruditu zitzaidan, hain denbora gutxian hainbeste gauza esan ahal izatea. Denbora



gutxira idazten hasi nintzen, baina urte asko pasa ziren abesten hasterako; batez ere rapa egiten zuten neska erreferenteak falta zitzaizkidalako. Egon bazeuden, baina La Mala Rodriguez eta Ari besterik ez nituen ezagutzen.

Nola gogoratzen duzu agertokira igo zinen lehen aldia?

Orain dela 7-8 urte izan zen, nafar erriberako gaztetxe batean. Hainbat eta hainbat taldek parte hartu zuten, eta guztiak gizonezkoak. Talde onak ikusi nituen, baina baita erdipurdikoak ere.

Ohartu nintzen haiek baino maila hobea nuela, eta kantu bat abestu nuen, lotsa medio, eserita egin banuen ere.

Gerora ikasi duzu agertokiaz gozatzeko?

Tira! Agertokiak alderdi asko ditu: badu nahi duzuna esan eta askatzen; baita ikusleekin hartu-emanetik; baina kontuz, egoa handitzeko arriskua ere bada. Irakaspen handiak ematen ditu beti.

Nondik irteten da barruan daramazun “furia” hori?

Nahi dudana izateko eta ezintasunaren

aurrean haserretzeko sistema patriarkalak jartzen dizkidan oztopoetatik. Abesten dut zauritik zornea ateratzeko eta odoletan nagoela kontatzeko. Terapeutikoa da niretzat.

Eraman ezin dituzun printzesa, dontzeila eta bukaera ideialei buelta ematen diezu zure kantuetan...

Ahultzen eta mina sorrarazten didaten bizitza moldeetatik urrun egon nahi dut. Genero arrazoiengatik baztertzeko gaituen indarkeria matxista gure hezkuntzan txertatuta dago. Horregatik jotzen dut kantuetan irakatsi zizkiguten ipuin horietaraino, haurtzaroraino.

Zure abestietan koplak, pasodoble, reggaeton... oinarriak daude. Zure baitan daude horiek ere?

Bai, nire musika kulturaren parte dira, familiarik datozkit. Koplak ama eta amonarengandik; jotak, berriz, aitararengandik. Eta nire kantuetan ageri dira. Batzuek uste dute musika estilo matxistak daudela, baina ez dago berezko estilo matxistarik, halako erabilerak baizik. Adibidez, rap talde serioen artean reggaetona gaizki ikusia egon da. Zergatik? Aurreiritziekin jokatzeko delako. Latinoamerikako jende txiroaren musika da eta beste estilo askotan bezala bada talde sexistarik, baina ez estiloa bera. Ez dut estilo soil bat errebindikatzeko, ezta rapa ere; guztiak zabaldu eta indartu behar dira!

Agerian daudenak baino askoz neska musika talde gehiago dago?

Rapa egiten dut, baina musika feministaren sarean mugitzen naiz. Rap eta punk taldeak biderkatzen ari dira eta bakarlari ugari daude. Joaten naizen jaialdietan talde berriak aurkitzen ditut beti.

Aniak ere rapeatzen du...

Bai, ni baino gazteagoa da, baina lehenago hasi zen kantuan. Lehen azaldu dudaren haritik, mutilak besterik gabe igotzen dira agertokietara; eta guk, neskok, hiru bultzakada behar izaten ditugu. Anaiari zor diot hori: berak esan zidan oso ondo idazten nuela eta kantuan hasteko. Aukera dugunean batera abesten dugu. Por La Sombra rap taldean eta A Las Bravas reggaeton proiektuan dihardu.

No hay clemencia. Norentzat ez dago errukirik?

Hilda ikusi nahi gaituztenentzat eta nahi dugun bezalakoak izaten uzten ez digutenentzat.

Abortuaren aurkako legeari buruz idatzitako kantuak mugak gainditu zituen...

La Tuerka telebista saioaren enkargua izan zen. Kontu horrekin hain erreta nengoenez, oso erraza izan zen niretzat: astebetean idatzi, abestu eta grabatu nuen; hain handia zen nire haserrea eta hitzetan ateratzeko beharra. Gero mugimendu feministak bere egin zuen eta niretzat oparia izan zen. Iraultza guztiak ereserkiak behar dituzte, eta niretzat ohorea da.

Ahalduntze feministari buruzko tailerrak gidatzen dituzu, rapa eta musika erabilia.

Bizitzan gertatu zaidan gauza politena da. Nik sortu eta garatutako proiektuak dira, eta elkarrekin ikasten dugu tailerretan. Tailer horietako batean ahalduntze feminista rap-aren bitartez lantzen dugu: erreferenteak bilatu, bilaketarako erremintak definitu, emakume raperoen historia berridatzi, eta rap kantuak idazten ikasi. Ez dut inongo interesik rapa ondo idazten ikas dezaten, baina nola idatzi ikas dezatela. Edozeinen eskura dagoen borrokatzeko erreminta da, punka bezala, "zuk zeuk egizu". Papera eta boligrafoa nahikoak dira gauza asko esateko. Hiru urteotan Oreretan, Ordizian, Pasaian, Zumarragan, Gopegin... aritu naiz. Gainera, horietako batzuetan, bigarren tailerra ematen hasia naiz, "Bestelako diziplina artistikoekin landutako ahalduntze feminista" izenekoa. Horietan feminismoa musikarekin, zinemarekin eta literaturarekin jorratzen dugu.

Hala, zuk ere lehen aipatutako musika harrobia hazten diharduzu, ezta?

Bai [barre egin du]. Tailer horietatik dagoeneko Panteras Rojas, Las Golden Macarras eta Bragada Criminal taldeak sortu dira; eta lehen biek Beldur Barik lehiaketako azken edizioak irabazi dituzte.

Bigarren diskoarekin buru-belarri zabil-tza. Zer aurreratu dezakezu?

Disko pertsonalagoa egiten ari naiz, bai egiteko moduari, bai emaitzari dagokionez. Rap gehiago izango du, elektronikoa ere bai, eta zuzenekoetarako berrikuntzak egingo ditut. ■




KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizi baten hitzezko erretratu



Saioa Ruiz



Maleta

SERGEI DOVLATOV

Itzultzailea: Amaia Apalauza Olló
Erein-Igela, 2015

Pozik naiz Sergei Dovlatov ezagutu izanaz. Idazle errusiarren artean ohituago gaude Gogol, Puxkin, Txekhov edo Tolstoi bezalako izenetara baina ziurtatu dezaket, behin dastaturik, Dovlatov (Ufa, 1941–New York, 1990) ahazten ez den idazle horietakoa dela. Idazle marginala, zirkulu literarioak eta fama erabat deuseztatu zituen. Kazetari lanetan arituta (erregimeneko trobadore lana, idazlearen hitzetan), Leningrad edo Tallinnen, bere bizitzako pasadizoetan oinarriturik idatzi ditu lan gehienak. Tartean artikulua honetan mintzagai dugun *Maleta* (1986) hain zuzen ere. Publikatzea debekatu ziotenean, 1978. urtean Idazleen Elkartetik kanporatu zutelarik, AEBetara emigratu zuen. Pasarte honetatik abiatua izan da *Maleta*.

Genero kontuetan sartzea gustuko ez dudan arren, esan daiteke eleberri eta ipuin-liburu baten tarteko zerbait dela, hasiera, garapen eta amaiera egiturarik gabea. *Maleta* barruan dauden zortzi objektu pertsonalek inspiratu dute kapitulu bakoitza: galtzerdi finlandiarrak, bota pare bat, trajea, gerrikoa, jaka, popelinezko atorra, txanoa eta gidari-eskularruak.

Objektu bakoitzari lotua den oroitzapen pilaketa honen bitartez eraikitzen da 60-70 urte bitarteko Sobiet Batasun baten erretratu, eta bertan Dovlatov ikusten dugu, vodka botila lagun, Leningradeko kaleetan zehar bizimodu komunista ortodoxora ohitu ezinean. Objektu bakoitza istorio baten enkarnazioa da, idazlearen bizitzaren garai bati lotua: galtzerdi trafikoa aritu zenekoa, San Petersburgoko alkateari botak lapurtu ziz-

kiona, lan egiten zuen egunkariko erredakzioak, zelatari batekin afaltzera joateko, traje bat erosi zionekoa edo Petri I.a tsarraren aktore-rola egin zuenekoa.

Erregimen sobietikoari buruzko satirak dira. Idazkera arina, zuzena, ironia eta umore absurdua nahasten dituena. *Fernand Léger-en jaka* ipuinean, bere anaiarekin daukan duen amaierako konbertsazioa dugu horren adibide:

“Eta zera galdetzen dit anaiak:

– Zer moduz habil Amerika aldean? Egia al da han eguneko hogeita lau orduetan saltzen dutela vodka?

– Ez diat uste. Ostatuak zabalik egoten dituk, hori bai.

– Eta garagardoa?

– Nahi beste eros dezakek gauez irekitzen duten dendetan.

Adeitasunezko eten bat.

– Gora kapitalistak! Haiek bai azkarrak!”

Zortzietan, *Popelinezko atorra* izenekoa gustatu zait gehien, beharrik, honelako has-tapen batek ez du inoiz huts egiten: “Haurra nintzelarik, haurtzain bat izan nuen: Luiza Genrikhovna. Ganoragabe samar ibiltzen zen, beldur baitzen atxilotuko zuten. Behin, galtza motz batzuk jantzi zizkidan. Eta galtza-zulo beretik sarrarazi zizkidan bi zangoak. Eta halaxe ibili nintzen egun guztian. [...] Banekien trakeski jantzia nintzela. Isilik geratu nintzen, ordea. Ez bainuen gogorik berriz aldatzen hasteko. Orain ere bezalaxe”.

Liburu gomendagarria erabat. Hasieratik amaiera arte irribarrea eragiten duen horietakoa. ■

» **TELEGRAMA**

Zé Premikin! jaialdiaren 2016ko edizioa hemen da: martxoaren 26an Anestesia, Zura, JP Lohian, Eraso!, Pelax... Donostiako Gaztesznean *STOP* Zer dira ba 30 urte? **Sex Museum** talde madrildarraren adina besterik ez: Bilboko Kafe Antzokian ariko dira martxoaren 26an, adina kontu psikologikoa dela erakusten *STOP Xiru festibala* hemen da eta egitaraua bete-beterik dakar: martxoaren 25etik 27ra Gotaine Irabarren musika eta askoz gehiago *STOP*

» **MUSIKA**

Donostia, musika klasikoaren epizentroa



Montse Auzmendi



International Classical Music Awards

SARIKETA / KONTZERTUA

Non: Donostiako Kursaal Auditorioan.
Noiz: apirilaren 1ean.

Ez da gehiegikeria izenburuan esaten dudana, hain baita garrantzitsua apirilaren 1ean Donostiako Kursaal Auditorioan ospatuko den ekitaldia: International Classical Music Awards (ICMA) sari-emate ekitaldia eta gala kontzertua. ICMA proiektua zer den ezagutzen ez duzuenontzat, esan daiteke musika klasikoaren Grammy sarien parekoa dela eta, beraz, mundu osoko ekoizpen onenak, ibilibide musikal arrakastatsuenak edo artista errebelazioak saritzen dira, besteak beste. Ez da gauza erraza ospakizun hau Euskadira, Donostiara hain zuzen ere ekartzea, baina Euskadiko Orkestra Sinfonikoak lortu du beste hainbat hiritan lortu ez dena, lan asko egin ondoren. Izan ere, sari-emate ekitaldia antolatzeke nolabaiteko leku enblematikoa aukeratzen da, kontuan harturik tradizio kultural eta musikala, eta erreferentziazko orkestra baten egoitza edukitzea, beste gaitasun batzuen artean. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritzak asmatu egin du honelako ekitaldia guregana ekartzearekin. Bestalde, Donostia 2016 Fundazioaren laguntza ezinbestekoa izan da proiektu honetan. Kontuan harturik aurtien Donostia Europako Kultur Hiriburua dela, ezin aproposagoa suertatzen da ekimen hau.

ICMA 2010. urtean sortutako ideia da, eta ez edonola. Hamahiru herrialdetan (Turkia, Finlandia, Belgika, Alemania, Hungaria, Austria, Errusia, Italia, Suitza, Erresuma Batua, Luxenburgoko, Frantzia eta Espainia) musika klasikoaren alorrean erreferentziazko hamazazpi ko-

munikabide paperezko zein digital eta irratien ordezkariak diren musika kritikariek izan zuten inizatiba.

Historia pixka bat egiteko, sari-ematearen lehenengo ekitaldia Finlandian izan zen, 2011n; hurrengo urtean, Frantzia antolatu zen, Nantesen hain zuzen ere; 2013. urtean, berriz, Mila- nen; 2014an Varsovia, eta azkenekoa, 2015ekoa, Ankaran ospatu zen.

Oraingo honetan, beraz, Euskadiren txanda da. Esan bezala, sari-banaketa aparte gala kontzertu paregabe batez disfrutatuko dugu non, Euskadiko Orkestrarekin batera, sarituak diren artista batzuek parte hartuko duten, hala nola Dame Felicity Lott soprano ingelesa (bizitza osoko ibilbideari saria), Christian Lindberg tronboi-jotzaile suediarra (urteko artistari saria), Pablo Ferrandez txelo-jotzaile espainiarra (urteko artista gazteari saria), Nikolai Song hamahiru urteko flauta-jotzaile singapurtarra (errebelazio saria), Javier Perianes piano-jotzaile espainiarra (Harmonia Mundi diskografia ordezkatzuz, honexek lortu baitu urteko diskografiari saria), David Violi piano-jotzaile frantziarra (lorpen bereziari saria), Michala Petri flauta-jotzaile alemaniarra eta Mahan Esfahani klabezin-jotzaile irandarra (antzinako musikaren interpreteei saria), eta Lukasz Dlugosz flauta-jotzaile poloniarra (musika garaikidearen interpreteari saria). Ikusten den bezala, zerrenda mardula oso egitarau erakargarria interpretatuko duena. Sarrerak salgai daude bada. Musika maite baduzu, ez galdu. ■

3D

EMANALDIA

Maddi Oihenart eta SokaHots Orkestrak martxoaren 6an Oztibarreko Bota gaztetxean eskainitako emanaldia.



Andrea Zubozki

Bota gaztetxeak (Oztibarre) kabaret gaualdi bat antolatu zuen. Bertan aritu ziren Paxkal Irigoyen, Les choeurs de la Citadelle, Jurgi Ekiza, Maddi Oihenart eta SokaHots Orkestra, eta Txiki donostiar antzerkilaria. Maddi Oihenart eta Jérémie Garatek iragan azaroan atera zuten *Doi* diskoa. Eta zuzenean presentatzeko beste bi musikariri laguntza eskatzen diote; Jimmi Arrabit (Itoiz, Sustrai...) bibrifonoan, eta Pascal Humbert (Detroit) kontrabaxu eta baxu akustikoan. Maddi kantuan, eta Jérémie biolontxelo eta gitarran (klasi-ko-elektiko). Laukotean agertzen zauku beraz taldea.

Igande arratseko hura kabaret gaualdia izanki, talde bakoitzak lauzpabost kantu eman dauzkigu. Maddi eta orkestra instalatu dira, eta lehen kantua hasi. *Ogella*. Denboraren sakontasunaren xerka doan kontrabaxuak, doinua pausatzen du, lurrean zimendatzen. Gitarak, harmonia ekartzeaz gain, kantua



EKE.EUS

eramaiten du, biziki abilki; harmoniak eskatzen duen informazio minimoa emanez, eta xehetasun garrantzitsuz apainduz hutsuneak. Bibrifonoaren soinuak hastapenetik bidaiarako dimentsioa ekartzen du. Airean dabilen soinu ezin harrapa horrek, harrapatu nau ni hastapenetik. Holako elementuek ez dautate kontzertua maitatzea baino beste hauturik uzten. Eta horrelako kontzertuak maite ditut, hastapenetik objektibitatea eta luziditatea galarazten dauzkidatelarik.

Maddiren ahotsak, kantua kantu bilakarazten du. Vibrato naturala eta xuxentasuna. Rol nagusia du, dudarik gabe. Baina ez da protagonismorik agertzen. Taldea baizik. Plazer handi bat, lehen kantuan berean, konturatzea diskoan den hirugarren dimentsio hori zuzenean ere aurkiarazten daukutela.

Agian kantuarekin segitu dute. Pixka bat lehen kantua ber formatuan. Eta lehen kantuan bezala, momentu az-

karrak agertzen dira. Halako hitzordu batzuek haien artean. Lauek bat egiten dutelarik, eraman bideak juntatzen dituzte eta jauzi handi bat emaiten dute. Ez aitzinerat, baizik eta urrunago. Hirugarren dimentsioan soinuaren difusioa eremu guzietarat hedatzen baita. Soinuak ez du grabitateak inposatuko norabiderik errespetatzen.

Emazte fabore kantua ondotik. Guttien maitatu dudana. Oraindik "fresko" atzeman dut.

Eta bukatzeko *Denbora asko* kantua. Gitarra akustikoan, Jérémiek baizik eza-gutu behar duen afinazio batekin hasten da kantua. Berriz ere bidaiarako gomita.

Hartu zuen eserlekuak, ezar segurtasun uhala, bagoaz! Lurra gibelean utzi dugu, o! So egin hor! Ilargia! Deia gibelean da... Kosmosean barna, inguratzeko gaituen materia musika da. Espazio denboraren infinitatea errazki ahanzten da, bizitzen dugun instanteak asetzen gaitueno. ■

Sonya Charest. *Danaus plexippus* murduskatu gabe errepikatzen du



Biologoa da Sonya Charest eta jendeok naturari begira dugun harremana bestelakotzea du betidanik helburu. Horretarako monarka deitu tximeleta lanabes ezin hobea dela dio: “Naturaz interes gutxi duen pertsona bere barrenean hunki eta erabat metamorfizatzeko gai da monarka”. Klima aldaketa, transgenikoak edota oihan mozteak direla eta, 4.000 kilometroz migratzen duten tximeleta horiek arriskuan dira.

“Desagertzeko bidean da monarken 4.000 kilometroko migrazio paregabea”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Jenofa Berhokoirigoin

Troiako zaldia

“Lilurari izugarri sentsiblea naiz, baina hori baino gehiago dugu monarka tximeletarekin. Zure, nire ala edonoren bizira sartuz, gure bihotzak irekitzen dituen Troiako zaldia da monarka. Kurioski, pertsonen erreakzioek naute monarkari lotu.

Bi zenbaki: hamar bat zentimetro, 4.000 kilometro.

Horixe. Quebecetik Mexiko erdira migratuko dute, negua han iragaiteko. 0,5 gramoko tximeleta ñimiño horientzat sekulakoa da 4.000 kilometroko migrazioa. Airean irristatzeko eta elikagai erreserbak egiteko gaitasun gaitza dute, eta hastetik buru, tximeleta berek dute iparretik hegora arteko bidea eginen.

Egingaitza dirudi.

Baldintzak alde izanez gero, ehun bat kilometro egiten dituzte egunka. Aitzinatzeko berotasuna ezinbestekoa izanki, gauetan pausatzen dira. Hain zuzen, jendeon metabolismoa nahiko egonkorra baldin bada, intsektuena ez da hala; haien baitan ez dute berez doan berotasunik eta kanpoko tenperaturaren erabat dependente dira. Sekulako indar hori eginik ere, pisua hartzen segitzen dute.

Helmugan ere energia behar dutelako.

Helmuga mendi goretan ukanki, energia hori ezinbestekoa dute. Helmugan biziki hotz da, ez dago elikagairik eta gainera,

ezin dute aktibatu, tenperatura hotzengatik. Erreserbei esker bizi dira, diapausan, geldi-geldirik, beste lau hilabetez.

Hori nola da posible?

Migrazio hori egin ahal izateko, monarka horiek besteetarik ezberdinak dira, ugalketarako sistema ez dute garatua. Ez dute horren beharrik hegora arteko bidaiari, ez eta ere Mexikon. Hori horrela izanki, energia erreserba gehiago egin ditzakete.

Udaberriarekin berriz abiatzen dira.

Udaberriaren berotasuna ailegatzen denean, ugalketarako sistema garatzen zaie eta erreproduzitzen dira. Hori eginik, arrak hiltzen dira haien betebeharra beterik, hots, haien geneak transmititurik, eta emeak iparrerantz abiatzen dira, Texas aldean diren asklepiade landareetan arrautzak erruteko. Iparrerako bidea bizpahiru belaunaldiz eginen dute.

Asklepiade landarea ala hil.

Harrak asklepiade landarea jaten du soilik, besterik ez. Harrak ezin du bizi asklepiaderik gabe.



"0,5 gramoko tximeleta ñimiño horientzat sekulakoa da 4.000 kilometroko migrazioa. Ipar Amerikaren baitako trukaketen sinboloa da monarka, eta Mexikok, AEBek eta Kanadak babesteko hainbat programa jarri dituzte martxan".

Oreka hauskor hori zertan da gaur egun?

Gaur egungo egoera nahiko kezagarria da. Miliarka monarka izanki, ezin ditza-kegu kontu eta Mexikon estaltzen duten eremuari so gara. Azken hogeitau urteetan batez beste zortzi hektareako eremua zuten estaltzen; iaz haatik hektarea bakar-ka! Hala ere, duela bi urte baino hobe-bera da egoera, orduan 0,67 hektarea zituztelako estali. Kezkatzekoa badugu bai eta funtsean, kezkatuak dira.

Jendeon jarduerengatik izango da.

Bai, hiru arrazoi nagusi dira eta hirurak guri loturik. Nagusia soja eta arto transgenikoen ekoizpena da. Landare transgenikoen belar-poziak gaina hartzen dietenez, belar-poziak hedatzen dabilta beti eta beti. Arazoa da horrela asklepiade landareak ere suntsitzen dabiltzala. Erreproduzitzeko gaitzeko gaitasuna dute monarkek; 300 edo 400 arrautza erruten ditu bakar batek, baina badakigu ere asklepiadarik gabe monarkaren harrak ezin daitezkeela bizi. Erran dudak bezala, ez bada asklepiadarik ez da bizirik! Landare horien sun-

tsitzen segitzen duten bitartean, gure esperantza txikituz doa.

Klima aldaketa ere izango da arrazoiatariko bat.

Bistan da, klima aldaketa ere hor dugu. 0,5 gramoko tximeleta batentzat sekulakoa da bidean hotzaldi edota idorte bat kausitzea. Pentsa, aro gaizto horien trabeskatzea zerbait da monarkentzat. Maleruski, gehienetan ezin gaituzte dira! Horrez gain, Mexikoko bizilekuaren suntsiketa ere badugu. Zuhaitzak moztuz, ingurune hori ilegalki ustiatzen dabilta. Zuhaitz bakar bat kentzea aski da hotza ala hezetasuna sartzeko eta bertako mikroklimatek erabat zangoz gora jartzeko.

Desagertzekotan dea monarka?

Migrazioaren fenomenoak da desagertzeko lanjerrean. *Danaus plexippus* espeziea ez da desagertzeko zorian, Hego Amerika guztian badira, lekualdatzerik egin gabe ala migrazio distantzia laburrak eginez bizi direnak. Baina, 4.000 kilometroko migrazio fenomeno paregabe hori da desagertzeko bidean. Hala

ere, azken urteetan aldaketarako nahia sentitzen da.

Erran nahi baitu?


Ipar Amerikaren baitako trukaketen sinboloa da monarka eta Mexikok, AEBek eta Kanadak babesteko hainbat programa jarri dituzte martxan. Gainera, sekulako komunitatea dago monarkaren inguruan. Asklepiada landatzen dabiltzanak, monarken segipena egiten dabiltzanak, tximeleta horri buruzko herri hezkuntzan dabiltzanak, eta abar. Montrealeko Insectarium-ean, asklepiade landare batez, bi krisalidaz eta lau harez osaturiko zorroak herritarrei banatzen gaituzte. Uda bukaeran, segipenarentzat etiketatu eta askatzen ditugu. 1.250 zorro saldu genituen iaz. Hogeitau zorroekin hasi ginen orain duela 21 urte.

Ez da ez nahikoa izango...

Konpainia batzuk milaka hektarea transgenikoz estaltzen dabiltzan bitartean, argi da gaizki gaituzte. Anitzez indar gehiago behar genuke kontrapisua egiteko. ■



Esan egia, zu zergatik zoaz Gazte Danbadara?



Beranduegiren behaketa soziologikorako departamenduak Gazte Danbadari buruzko bi galdeketa egin ditu Euskal Herri osoko gazteak ordezkatzeko moduko lagina erabiliz. Helburua: Laudiora joango direnen motibazioak ezagutzea. Lehenbizi izen-abizenak emanda erantzuteko eskatu zaie gazteei eta emaitzak ikusita, ondorioztatu daiteke urte luzetarako militanteak ziurtatuta daudela Euskal Herri aske eta aurrerakoia eraikitzeko bidean. Gero anonimoki erantzuteko eskatu zaie. Eta ikerketaren ondorio nagusia da Danbada BUATXABAL PLANAZO BAT DELA.

SAREAN ARRANTZATUA

Erratza eta askatasuna



Euskaltzaindiko langileek borrokak autsak arrotu ditu

Euskaltzaindian ba omen dago lan egiten duen jendea. Ez oso gustura ordea. Joan den astean kalera atera ziren berriz ere, zuzendaritzak ezarritako lan baldintzengatik protesta egitera. "Hitzarrena aldatzen digute hiru egunero, ta hola ezinleike", aldarrikatu du Elixabet Perpaus enpresa batzordeko kide txit agurgarriak; "aurrekoan Etxeparek insomnia zuela jakin zuten eta gaueko txandak egitera behartu gintuzten; katarforaraino gaude!". Daborduko hainbat lanuzte egin dute, baina ez dute lortu



Pankarta orain akatsez beteta dago, baina auskalo, noizbait zuzena izan liteke.

greba orokorrera deitzeko langileen arteko adostasunik. "Batziek *huelga* lehenesten dute eta...". Zuzendaritzak, berriz, honakoa argudiatu du: "Guk tradizioaren defentsa irmoa baizik ez dugu egin nahi... momentuz".

BERANDUEGIK elkartasun osoa agertu nahi die borrokan dauden langileei; aurrerantzean, haiekiko sinpatiaz, ortografia hutsak egingo ditugu. "Ziur" hatxerik gabe idatziko dugu, konparaziorik gabe.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA

EUSKALZALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA



Euskarazko astekari zaharrena gara, Zeruko Argiaren oinordeko, eta 2019an ehun urte beteko ditugu euskarazko kazetaritza egiten. Urrunago goaz ordea, eta euskarazko kazetaritza egiteaz gain, gure irakurleei euskaltzale aktibo, euskararen erabileran eragile, izateko tresnak eskaintzen saiatzen gara.

APIRILEKO ZOZKETAK



Kontseilua eta Euskaraz Bizi Nahi dut (3 saski)

Kontseilua
kontseilua.eus



Irten hizkuntzaren armairutik (5 liburu)

Emun
www.emun.eus



Azken Txorakikeriak

ARGIA
www.argia.eus/denda



Euskal Herrian Euskaraz-en materiala

Euskal Herrian Euskaraz
www.euskalherrianeuskaraz.org

MARTXOKO
SARITUAK

BERDEAN HEZI: XABIER ZUZUARREGI (ZIZUR NAGUSIA), OIHANA PLAZA (MARKINA-XEMEIN)

HAURREN HIRIA: IMANOL ARLUZIAGA (DONOSTIA), LEIRE ELIZAGARAI (GASTEIZ)

URTIXINTXA SASKIA: MIKEL GARMENDIA (BILBO), HAIZEA RAMIREZ DE ALDA (ALTSASU), EGOITZ UNAMUNO (SORALUZE), BELEN IRASTORZA (ZALDIBIA)

HAZI HEZI HARPIDETZA: ADOLFO MASID (HERNANI), JOXEMARI MUXIKA (ARRASATE), ARRATE LARRUZE (BERMEO), G02 IRUNGO BERRITZEGUNEA (IRUN), ITZIAR GARCIA (OÑATI)

PERRETXIKO ZAINDARIAK: IDOIA ATXAGA (DIMA), ENEKO ETXEBARRIA (AGURAIN), JONE SANTAMARIA (DONOSTIA)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com